

hh
hik hasi

Nora Salbotx irakasleari elkarrizketa
Matematika manipulagarria
Kirolaren onurak buru-osasunean
'Tribuaren berbak' nola erabili gelan?
Vikidia, haurrentzako on-line
entziklopedia
Goizalde Landabaso

4
2
2



ESKOLAKO PATIOA

MILA BIDAIA MUNDUKO SUKALDEETARA

*+ Mugaritz jabetxearen
errezeta-liburua*



TXILIKU · EIDER EIBAR



MUNDUKO SUKALDARITZA
ETXEETARA HURBILTZEKO
JOLAS-LIBURU-TRESNA

berria elkar

AURKIBIDEA

GAIA / 10

ESKOLAKO PATIOA

Heziketarako gune bat gehiago da eskolako patioa. Inork ez du hori zalantzan jartzen, baina ikasle, irakasle nahiz guraso zenbaiten artean kezka nagusitu da haren erabileraren inguruan. Patioek benetan haurrek dituzten beharrei erantzuten ote diete? Zein balio gailentzen dira? Hainbat ikastetxetan hasiak dira patioaren inguruan hausnartzen eta espazioaren antolaketa modu berriak planteatzen.

ELKARRIZKETA / 18

NORA SALBOTX

Behetik gora ekinez eta txikitik eraginez urratu du bidea Salbotxek, eta esperientzia oparora pilatu du hezkuntzaren arloan: Amaiurko eskola txikian irakasle hastapenean; eta irakasleen formakuntzan ondoren. Herrigintzan ere urte luzez aritu da lanean. Eta beste ororen gainetik, hezkuntzaren inguruko ikuspegi humanista garatu du. Beti ere, jarrera baikor batekin eta euskal hezkuntza nazionala erakitzea xede hartuta.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Diarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2017-12-12).

Kopurua: 3.100 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiek.

5 EDITORIALA

Guztionezko patioa, guztionezko eskola, guztionezko herria

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Eskolako patioa. Ikasle guztiei leku egin nahian

18 ELKARRIZKETA

NORA SALBOTX

“Ikasleen begietan, irakasle on batek egiten duenarekiko maitasun moduko bat, transmititu behar luke”

26 ESPERIENTZIAK

Matematika manipulagarria

32 EKARPENAK

Kirolaren onurak buru-osasunean

34 GALDEIDAZU

KIKE AMONARRIZ

Nola erabili gelan 'Tribuaren Berbak' sekuentzia didaktikoak?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Vikidia, umeentzako euskarazko on-line entziklopedia

42 ATZEKO ATETIK

Goizalde Landabaso

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Guztiontzako patioa, guztiontzako eskola, guztiontzako herria

editoriala

PATIOAREN INGURUKO HAUSNARKETAK HAUR ZEIN NERABEEN BIZITZAKO BESTE EREMUETARAKO ERE BALIO BEHAR LIGUKE: FAMILIAN, IKASGELAN, AISIALDIAN, AUZOAN, KALEAN... PERTSONA GUZTIEI EGITEN OTE ZAIE LEKU?



Ikasle, irakasle nahiz gurasoen artean, ordea, bada kezka patioaren erabileraren inguruan. Zer-nolako rola erreproduzitzen dituzte beroietan ikasleek? Zer-nolako harremanak izaten dituzte? Adin guztietarako baliagarriak ote dira? Patioek benetan haurrek dituzten premiei erantzuten ote diete? Zein balio nagusitzen dira?

Eta, patioaren gainean formulatzen diren galdera horiek ez ote lukete balio beste eremu batzuen inguruan ere gogoeta egiteko? Alegia, eskoletako geletan ikasle guztiei egiten ote zaie lekua? Haur denen premiei erantzuten ote zaie? Zer-nolako harremanak sustatzen dira? Eta, aisialdiko ekintzetan? Zer eredu nagusitzen da eskola-kirolean? Zer-nolako balioak gailentzen dira hizkuntza akademietan edota musika-eskoletan? Horietan ere haur eta nerabe denak izaten ote dira kontuan? Eta herriko plazan edo kalean, nork hartzen du protagonismoa eta nor geratzen da bazterrean?

Aldizkari honetako gai nagusian jasotzen den moduan, eskoletako patio gehienak oso antzekoak dira, eta beroietan sortzen diren harreman asko ez dira kalitatezkoak, patioaren egiturak ez dituelako ordezkatzeko bertan dauden pertsona guztien identitateak. Badago gehiengo bat patioaren periferian egoten dena, talde

txikitan, apur bat baztertuta balego moduan; eta, bestetik, badago ikasleen zati txikiago bat patioaren azalera osoa erabiltzen duena, normalki futbol-zelai gisara. Bigarren horiek dira aktiboak, protagonismoa daukatena, gizonetzkoak, autoritatea esleitzen zaienak... eta beste guztia dago horren mende. Askotan, periferian egoten diren haur eta nerabe horiek ez dute parte hartzen, ez dute jolasten, ez dira aktibo... hori maiz gertatzen da horretarako aukerarik ez dutelako, ez zaielako eskubide hori aitortzen, eta ez delako guztien parte-hartze hori ahalbidetuko duen errealiterik sortzen.

Baina, patioaren inguruko hausnarketa honek haur zein nerabeen bizitzako beste eremuetarako balio behar liguke: familian, ikasgelan, aisialdian, auzoan, kalean... pertsona guztiei egiten ote zaie leku, eta denen beharrak barne hartzen ote dira? Guztiei entzuten ote zaie eta denek ote dute hitza?

Hainbat ikastetxetan hasiak dira patioaren inguruan hausnartzen, espazioaren antolaketara modu berriak planteatzen, eta eraldaketak gauzatzen. Xedea da jolastokiari garrantzia ematea eta espazio hori denona dela ulertzea; eta beraz, denen premiei erantzuteko moduak bilatzen eta haur guztiak barne hartuko dituen eremuak eraikitzen ahalegintzea. Baina patioaren inguruko hausnarketa eta esku-hartze horiek ezin ote genitzake beste esparru batzuetara ere eraman?

“D eredutik datozen belaunaldietan euskaltzaletasunik gabeko euskalduntasuna erein da, eta euskara ikasteak ez dauka loturarik erabilerarekin”

Joxe Manuel Odriozola



JAURLARITZAREN BIZIKASI EGITASMOA, ESKOLA JAZARPENAREN KONTRA EGITEKO

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak Bizikasi egitasmoa jarri du martxan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskola publikoetan, eskola jarzarpenera aurre egiteko tresna gisa. Hezkuntza komunitate osoaren prestakuntza sustatuz, “ikastetxeak biolentziarik gabeko gune bilakatzea” du xede. Izan ere, Jaurlaritza kezkatuta agertu da 2015-2016 ikasturtean erkidegoan 121 kasu salatu dituztelako, hain zuzen aurreko ikasturtean salatutakoaren bikoitza.

Egitasmoak hiru ardatz izango ditu: prebentzioa, esku-hartzea eta jarraipena. Eskola bakoitzean bullying kasuetan lidergoa izango duen talde bat osatuko dute ikastetxeko zuzendariak, ikasketa-buruak, orientatzaileak eta bizikidetza arloaz arduratuko den irakasleak. Horien arduraren izango da prebentzio ekintzak diseinatzea, eta Berritzeguneekin eta ikuskariekin koordinatzea esku hartu behar den kasuetan.

Hezkuntza sailburu Cristina Uriarteren esanetan, “inplikaturik dauden alde guztien formakuntzak erraztuko du kasuak antzematea eta esku hartzea”. Prestakuntza ez ezik, ikastetxeek kontrolerako materiala jasoko dute. Irakasleek eta ikasleek gain, familiek, administrazio langileek eta eskolaz kanpoko ekintza taldeek ere parte hartuko dute egitasmoan. Orain arte, Berritzeguneetako 320 aholkularik, 80 ikuskarik eta taldeen dinamizazioan ariko diren 800 irakasle inguruk jaso dute formazioa.

LAN DEIALDIETAN IRAKASLEAK HIZKUNTZAREN ARABERA SEGREGATZEKO LEGEA ONARTU DUTE NAFARROAN

Nafarroako Legebiltzarrak hezkuntzako lan-deialdietan irakasleak hizkuntzaren arabera segregatzeko legea onartu du. PSN alderdiak aurkeztu zuen lege proposamena, eta UPN, PP nahiz gobernuako kide den Ezkerra alderdien babes jaso zuen bozketan. Estua izan zen, hala ere, emaitza: guztira aldeko 26 boto jaso baitzituen proposamenak, eta kontrako 24; Geroa Bai, EH Bildu eta Ahal Dugu alderdienak, hain zuzen. Modu horretan, oztopatu egin dute Nafarroako Gobernuak lan-deialdietan zerrenda bakarraren alde egiteko agertu zuen asmoa, eta UPNren gobernuak bere garaian ezarritako segregazio sistema lege bermatuta gelditu da. Hala, hezkuntzako lan-deialdietan bi zerrenda izango dira, euskarazkoa bata eta gaztelarazkoa bestea, eta elebidunek bietakoren bat aukeratu beharko dute; edo, bestela, bi zerrendetara aurkeztu, eta ondorioz, bi azterketa gainditu beharko dituzte euskaraz nahiz gaztelaraz aritzeko aukera izateko.

Nafarroako Gobernuak azaroan iragarri zuen zerrenda bakarra osatzeko asmoa; modu horretan, elebidunek azterketa bakarra gainditurik aukera izango zuten euskarazko nahiz gaztelarazko irakasle postuetan aritzeko. Albistea pozez hartu zuten euskararen aldeko eragileek, Kontseiluak esaterako, ulerturik elebidunen aukera berdintasuna bermatzen zuela. ELA, LAB eta Steilas-ek osaturiko gehien-go sindikala ere neurri horren alde agertu zen. Nafarroako Gobernuaren asmoari babes erakusteko, Kontseiluak deituta manifestazioa egin zuten abenduan Iruñean, *Bide eman euskarari, berdintasunaren alde!* lelopean. Mobilizazioaren helburua zen, era berean, Ezkerra alderdiari gai honekiko zuzen jarrera aldatzeko eskatzea, ohartaraziz UPNren garaiko “erabaki baztertzailer bat” babestuko zutela lege proposamenaren alde eginez gero.



HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

LAUGARREN GREBA EGIN DUTE HEZKUNTZA PUBLIKOKO LANGILEEK ARABAN, BIZKAIAN ETA GIPUZKOAN



Abenduaren 12an greba orokorra egin zuten unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko langileek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan mahai sektorialean ordezkaritza duten sindikatu guztiek deituta, hau da, ELA, LAB, Steilas, CCOO eta UGTk. Erantzun zabala izan zuen sindikatuen deiak, eta hala, manifestazio jendetsuak egin ziren Bilbo, Donostia eta Gasteizen ELA, LAB eta Steilas sindikatuek konbokatuta, eta elkarretaratze bana, berriz, Bilbon, CCOO eta UGT sindikatuek deituta. Guztira ikastetxe publikoetan lan egiten duten 28.000 irakasle, heziketa bereziko langile, sukaldari eta garbitzaile zeuden grebara deituta, eta, sindikatuen esanetan, %75ak egin zuen bat grebarekin; Jaurilaritzaren arabera, berriz, langileen %58k egin zuen bat. Grebaren bidez oro har hezkuntza publikoko langileen lan baldintzak hobetzeko eskatu zuten, eta, horrekin, hezkuntza publikoaren kalitatea hobetzeko: ratioak %10 murriztea, irakasleen lantaldea 1.800 lanposturekin handi-tzea, gaixotasun bajak lehen egunetik ordezkatzea...

Unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoaren "egoera larria" salatzen hainbat protesta egun egin dituzte azaroan zehar bertako langileek LAB, Steilas eta ELA sindikatuek deituta. Azaroaren 9an Haurreskola Partzuergoko langileak hasi ziren grebarekin eta sukaldeetako nahiz garbiketako langileek, heziketa berezikoek eta irakasleek jarraitu zieten hurrengo asteetan.

LEGEZ KANPOKO JO DUTE IRUÑEKO HAUR ESKOLETAKO EUSKARA ESKAINTZA

Iruñeko bi haur eskolatan, Donibainen eta eta Printzearen Harresian, euskarazko lerroa ezartzea erabaki zuen iaz Udalak, modu horretan lau eskolara zabalduz euskarazko eskaintza (tokien % 24). Orain Nafarroako Auzitegiak legez kanpokatzen jo du erabaki hori, otsailen lehen instantziako epaileak harturiko erabakia berretsiz. Izan ere, epailearen ustez, Udalak eskumena badu haur eskoletako eskaintza berrantolatzen, baina iaz hartutako erabakia harago doa, eskaintza hori "osorik aldatu" baitute. Euskarazko lanpostuak 164tik 408ra igo direla nabarmendu du epaileak, eta gaztelerazkoak 255 lanpostu kendu. Aldaketa hori Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren eskumena dela uste du epaileak.

Epaia salatuz, agerraldia egin zuten Iruñeko Udaleko gobernu taldeko lau alderdietako ordezkariak, eta Joseba Asiron alkateak jakinarazi zuen epaiak ez duela izango eraginik beraien erabakian eta eutsi egingo diotela euskarazko eskaintzari aipaturiko bi haur eskolatan: "Dagoeneko bukatu den ikasturte bati eragiten dio epaiak, baina horrek ez du aurtengo matrikulazioa baldintzatuko, ezta hurrengo urteetakoak ere". Mainer Beloki Hezkuntza zinegotzia ildo beretik mintzatu zen: "Udalak 30 urte zerratzen euskarazko eskaintza aldatu gabe. Guk planteamendu osoagoa eta orekatuagoa egin genuen, eta hori berretsi nahi dugu".



EZOHIKO GAIXOTASUNAK DITUZTEN IKASLEEK ESKOLAN BIZI DITUZTEN ZAILTASUNEN INGURUKO IKERKETA EGIN DUTE, EHU-K KOORDINATUTA

Euskal Herriko Unibertsitateko Inkluni taldeak koordinatuta, *Ezohiko gaixotasunak dituzten ikasleak eta eskola inklusiboa* ikerketa-lana eman dute argitara. Lan horretan gaixotasun "arraro" deiturikoak jasaten dituzten ikasleek eskolan egunerokoan bizi dituzten zailtasun eta eragozpenak aztertu dituzte, eta, horrekin batera, hainbat ikasle eta gurasoren testigantzak jaso dituzte. Azterketan parte hartu duen Igone Arostegi ikerlariaren esanetan, hain zuzen ikasle eta familia horien eskariz ekin zioten ikerketari.

Kasuak askotarikoak izan arren, hobetzeko elementuak zein diren antzematzerakoan bat etorri dira familia asko. Izan ere, askok gabeziak ikusten dituzte irakasleen jarreretan, ikastetxearen antolakuntzan eta metodologietan, koordinazio faltan... Gaixotasun hauek pairatzen dituzten ikasleetako askok maiz egiten dute huts eskolara, infekzioak eta abarrak ohikoak izaten direlako, edo medikuengana beste ikasleek baino sarriago joan behar izaten dutelako. Horrek arazoak sortzen dizkie eskolako ohiko martxa jarraitzeko, edo ebaluazio egunetan ikasgelan egoteko. Horregatik, Arostegik argi du gai honetan hitz gakoak "malgutasuna" dela, eta gaur egun teknologiak asko errazten du hori: "Egon ahal dira modu ezberdinak ebaluatzeko, on-line bidez esaterako". Izan ere, oinarrizko hezkuntza eskubide unibertsala izanik, ezinbestean bermatu beharreko eskubidea dela gogorarazten dute: "Orain arte gehienbat egin da curriculumak egokitu, baina beherantz, beti ikuspegi horrekin. Baina hori ez da inklusioa: ikuspegi inklusiboa da guztiak heldu behar dutela oinarrizko hezkuntza betetzera". Hori bermatzeko, ezinbestekoa deritzote familiei hitza emateari eta osasun-sistema eta eskolen arteko koordinazioari.

Horrekin guztiarekin ekidin nahi dute gaur egun errealitate dena: gaixoen % 75ek nolabaiteko bazterkeria sentitzen dute.



IKASTETXEETAN EUSKARAZKO B2 MAILA LORTZEKO NEURRIAK HARTZEA ESKATU DUTE

Kontseiluak eta hezkuntzako eragile zenbaitek, oinarrizko hezkuntza bukatzean ikasle guztiak euskarazko B2 maila lortzen dutela bermatzeko neurriak har ditzan eskatu diote Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari. Izan ere, Hezkuntza Ituna berritzeko prozesuaren baitan, hizkuntzei buruz ere gogoeta egiten ari da Jaurlaritza. Horrekin batera, hiru hizkuntzen eredia baztertu eta euskara ardatz lukeen eredia sustatzeko ere eskatu diote. Aldarrikapenetan Kontseiluarekin bat egin dute ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek, itunpeko eskolen sareek, publikoko hainbat eragilek, UEUK eta Hik Hasi berak.

PSIKOMOTRIZITATE PRAKTIKA IKASTAROAK ANTOLATU DITU LUZARO ESKOLAK

UNED-Bergara Unibertsitateko Luzaro Psikomotrizitate Eskolak, Heziketarako Psikomotrizitate Praktikan formatzeko bi urteko ikastaroa antolatu du 2019-2020ra begira, eta horietan parte hartzeko ezinbesteko Psikomotrizitate sentsibilizazio ikastaroak antolatu ditu 2018rako. Jada irekita dago ikastaro horietan izena emateko epea.

HIZPIDE IZANGO DA

TALDEA OSATU DA KUBAKO HEZKUNTZA-SISTEMA EZAGUTZEKO BIDAIA PEDAGOGIKORAKO, BAINA ORAINDIK BADA PARTE-HARTZEKO AUKERA




Kubako hezkuntza-sistema ezagutzeko bidaia pedagogikoa antolatu du Hik Hasik martxoaren 30etik apirilaren 7ra, iaz Finlandiara edo Reggio Emiliara antolatutako bidaien ildotik. Izen emate epea itxi da eta jada taldea osatuta dago, baina, hala ere, parte hartu nahi izanez gero, oraindik gelditzen da aukera bat: Hik Hasik Kuban antolatu dituen hitzaldi eta jardunaldietan parte hartzea, baina norberak lotzea Kubarako bidaia eta hango ostatua. 450 € ordaindu behar da horretarako; Hik Hasi eta Hazi Hezi aldizkarietako harpidedunei, urteko harpidetza kuota deskontatuko zaiei prezio horretatik.

Apirilaren 2an, astelehenean, Kubako hezkuntzaren antolaketaren inguruko hitzaldia izango da, oinarri gisa. Hortik aurrera, apirilaren 3an, 4an eta 5ean, ikastetxeetara bisitak egingo dira: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza, Unibertsitate Aurrekoa eta Unibertsitateko Irakasleen Eskola bisitatuko dira. Horren bidez, *Haurra hezten* programa ezagutzeko aukera izango da.

'GUZTIOK IZAN BEHARKO GENUKE FEMINISTA' LIBURUA EURO BATEAN ZENTROENTZAT

Chimamanda Ngozi Adichie idazle nigeriarraren *Guztiok izan beharko genuke feminista* saiakera euskaraz argitara eman du Hik Hasik 2017an, Lorea Agirre kazetariaren hitzaurrearekin. Ikastetxe guztiak generoaren gaia lantzeko euskarri sendo bat ematea zen helburua, eta, horregatik, Euskal Herriko ikastetxe guztietara doan banatu zen argitalpena.

Orain, ikasle-taldeekin landu dezaten gaia, eskaintza berezia egin die Hik Hasik heziketa zentroei: 10 ale edo gehiago eskatuta, liburuxka bakoitza euro 1ean eskura dezakete. Eskaera urtarrilaren 31 baino lehen egin behar da, www.hikhasi.eus/Denda/Liburuak helbidean.





Heziketarako gune bat gehiago da eskolako patioa. Inork ez du hori zalantzan jartzen, baina ikasle, irakasle nahiz guraso zenbaiten artean kezka nagusitu da haren erabileraren inguruan. Patioek benetan haurrek dituzten premiei erantzuten ote diete? Zein balio gailentzen dira? Zer-nolako jolasak, kirolak eta ikaskuntzak indartzen dira? Hainbat ikastetxetan hasiak dira patioaren inguruan hausnartzen, espazioaren antolaketa modu berriak planteatzen, eta eraldaketak gauzatzen. Horietako bi esperientzia ekarri ditugu orriotara: Azpeitiko Karmelo Etxegarai Ikastolakoa, bata; eta Duranako Ikasbidea Ikastolarena, bestea.

GAIA: ESKOLAKO PATIOA

Ikasle guztiei leku egin nahian

Asfaltoa eta hormigoia luze-zabal osoan, futbol-zelaia erdi-erdian, eta kasurik onenean, saskibaloiko kantzaren bat bazterren batean. Eskola gehienetako patioaren argazkia antzekoa da. Estandarizatutako ereduarekin errepikatzen da han eta hemen; izan Bilboko ikastetxe handi batean edota Arratiako zentro txikiago batean, kontuan izan gabe zein testuingurutan dagoen eskola.

Inork ez du zalantzan jartzen heziketarako gune bat gehiago dela eskolako patioa. Besteak beste, espazio publikoa erabiltzen eta harreman sozialak garatzen ikasten dute bertan haur zein nerabeek. Ikasle, irakasle nahiz gurasoen artean, ordea, bada kezka patioen erabileraren inguruan. Zer-nolako rola erreproduzitzen dituzte beroietan ikasleek? Zer-nolako harremanak izaten dituzte? Adin guztietarako baliagarriak ote dira? Patioek benetan haurrek dituzten premiei erantzuten ote diete? Zein balio nagusitzen dira? Zer-nolako jolasak, kirolak eta ikaskuntzak indartzen dira?

Hainbat ikastetxetan hasiak dira patioaren inguruan hausnartzen, espazioaren antolaketa modu berriak planteatzen, eta eraldaketak gauzatzen. Haurrak eta nerabeak patioan benetan ikasten ari diren horren inguruan eta barneratzen ari diren balioen gainean gogoeta egitea dute jomuga, eta ahal dela, ikasle guztien premiak asetuko dituzten espazioak antolatzea, patioa ere balio hezitzaileak barneratzeko gune



Ane Abarrategi, Manuela Abasolo eta Maddi Texeiro, Elkartoki proiektuaren arduradunak.

eta harreman gizatiarrak sustatuko dituen eremu izan dadin.

Eskolarik gehienetan orduerdiko atsedenaldia izan ohi dute ikasleek goizean patioan igarotzeko, baina horrez gain, eguerdi partean ere haur gehienak eskolako jantokian geratu ohi dira bazkaltzen, eta beraz, beste bi ordu inguru pasa ohi dituzte patioan. Ikastetxe batzuetan, gainera, gorputz-heziketarako ere eremu hori bera erabiltzen dute; eta badira kasuak arratsaldeko aisialdi orduetan ere espazio berbera erabiltzen dutenak. Beraz, eskola-egunetan umeei bi ordu

GAIA: ESKOLAKO PATIOA

Ikasle guztiei leku egin nahian

eta lau ordu artean igaro ditzakete eskolako patioetan. Beste edozein arlo curricularri eskaintzen zaion adina denbora edo gehiago. Merezi du, hortaz, gogoeta egitea hurrek eta nera-beek patioan barneratzen duten horren guztiaren inguruan.

Futbola, jaun eta jabe

Nahiz eta zenbait ikastetxetan aldaketak egiten hasiak diren, oro har, eskoletako patioetan egin diren esku-haritzeak —izan azpiegiturei dagokienez nahiz antolatutako joko-jolasei dagokienez— oso urriak dira. Ereku publiko batean, hau da, toki komunitario batean —eta, zer da bada eskolako patioa?—, espazioaren zatirik handiena jarduera bakar baterako erabiltzen denean, mezu argia igortzen da: jarduera horrek zer-nolako garrantzia eta gailentasuna duen gizarte horretan. Futbola da jarduera nagusi hori ia heziketa-zentro guztietan. Patioaren erdi-gunean gizonetzkoak ibili ohi dira batez ere, gehienetan futboleak. Sarri, gainera, zelai horretan ez da edozein mutilentzako ere lekuri izaten; nagusienak eta indartsuenak gailendu ohi dira. Beste ikasle guztiak —ia neska

denak eta mutil batzuk— futbol-eremu horren inguruan egon ohi dira, kontutan edo pasieran, ikasle kide gizonetzkoen zentralitate eta protagonismo osoa emanaz. Gaur egungo patioen egiturarekin eta erabilerarekin kritiko diren ahotsek salatzen dutenez, jolas-denboran bazterrean geratzen diren ikasle horiek espazio publikoaren gune nagusia —eta bide batez boterea— mutil zaharrenei eta indartsuenei uzten ikasten dute, eta denboraren iraganaren poderioz, besteen jokoaren ikusle huts bilakatzen dira; pasibo, besteak ekintzaile diren bitartean. Hala, patioko periferietan dauden pertsona horiek eta haien jolas zein jarduerak bigarren plano batean geratzen dira eta gainontzeko kideentzat ikusezin bilakatzen dira.

Sarri, gainera, patioko garaia gela barruan geldirik egon ostean, energia askatzeko denbora bilakatzen da, mugimendu askokoa, eta maiz, burrundara eta nahas-masa handikoa; eta testuinguru horretan, zentro ugaritan gatazkak ere nabarmen igo ohi dira atsedenaldira orduetan. Egoera horiek baretzeko bitarteko gisa, zenbait ikastetxetan kirolak berebiziko garrantzia hartu ohi du patio orduetan, eta hori oso gogoko dute ikasle askok. Baina



Lekeitioko ikasleak Elkartoki proiektuan parte hartzen.

GAIA: ESKOLAKO PATIOA

horrek ere badu bere infrentzua, joko lasaiagoak eta hain lehiakorrak ez direnak gustukoago dituzten ikasleak bigarren mailan geratzen baitira, eta, maiz, ez baitira kontuan hartzen.

Beraz, kontzienteki pentsatua eta diseinatua izan ez arren, esan daiteke patioak ere baduela bere curriculum, ezkutukoa gehienetan. Izan ere, eskola-egunaren baitako denbora-librerik gehiena bertan igarotzen dute ikasleek eta bertan gertatzen dira haurren eta nerabeen arteko harreman ez-formalik esanguratsuenak: espazio publikoko rolak eta balioak erreproduzitzen dira. Hortaz, patioaren gaian eskurik ez hartzea edota ezer ez egitea, asko egitea izan daiteke: horrek gauzek lehen bezala jarraitzea eta *status quo*-a mantentzea esan nahiko luke, ikasleen artean dagoen aniztasunari muziz eginaz, eta haur zein nerabe denen premiak kontuan izan gabe. Baina, hori ote da eskoletan desiratzeko dena? Bat ote dator patioetako errealtate hori gaur egun ikastetxe gehienek dituzten hezkuntza proiektuekin? Nola lortu daiteke patioa eskolako gune hezitzaile bat gehiago izatea? Zer egin patioa gizarte demokratiko gisara sustatu nahi diren balioen transmisore izateko?

Haurrei hitza eman eta bestelako errealtateak irudikatu

Geroz baino geroz ikastetxe gehiagotan ari dira patioaren inguruan hausnartzen eta aldaketa txikiak nahiz handixagoak txertatzen: zentro batzuetan zuzendaritzak sustatuta; beste batzuetan gurasoen eskariz; kanpoko aholkularitzan laguntzaz hainbatetan eta eskola-komunitateak koordinatuta zenbaitetan.

Patioen inguruan hausnarketa bultzatzen eta eskoletan eraldaketak bideratzen dihardute, esaterako, Ttipi Studioko kideek — Ane Abarrategik, Manuela Abasolok eta Itsaso Larramendik —. Patioetako errealtatea zein zen ikusirik, espazio horiek fisikoki zein filosofikoki eraldatzeko proiektu bat martxan jartzea erabaki zuten: Elkartoki proiektua, hain zuzen. *Denontzako patioa elkarrekin diseinatzeko egitasmoa* ari dira garatzen, jabeturik “patio guztiak direla berdinak”, eta beroietan sortzen diren harreman gehienak ez direla kalitatezkoak, eta ez patioaren egiturak eta diseinuak ez dituelako ordezkatzeko bertan dauden komunitate guztien identitateak. Xedea da umea erdigunean jartzea eta haiekin prozesu bat egitea: lehenik, patioan zer-nolako bizipenak dituzten ikusteko eta nolako harremanak garatzen dituzten jakiteko; eta, bigarrenik,

sorkuntza eta diseinu tailerren bitartez ikasleek eurek eskolako patioaren espazioaren egitura eta erabileran eragin dezaten.

Umeak protagonista izanik, patioaren inguruko hausnarketaren eta eragite prozesuaren beraren indarra azpimarratzen dute Elkartoki egitasmoaren sustatzaileek: “Haurrekin elkartzen gara patioaren inguruan gogoeta egiteko eta ideiak botatzeko. Prozesuan jartzen dugu azpimarra eta prozesu horren baitan parte-hartzeak berebiziko garrantzia hartzen du. Prozesua bera pedagogikoa da eta artearen erabilerari eta sorkuntzari garrantzia ematen diogu”, argitzen du Abarrategik. Eusko Jaurlaritzak deituriko diru-laguntza deialdi baten markoan sortu zuten Elkartoki proiektua eta bere bitartez sare guztietako eskolei patioaren inguruan hausnartzeko eta eraldaketa bultzatzeko prozesuak egiten laguntzen diete.

Elkartoki egitasmoa, hasiera batean behintzat, LHko eta DBHko ikasleekin lan egiteko dago pentsatua. Baina Abarrategi, Abasolo eta Larramendi kontziente dira haur zein nerabeekin beste modu batera egin behar dutela lan. Zuzenean zer nahi duten galdetuz gero, edonork bezala, ikasleek ere ezagutzen duten horretatik abiatu emango dituztelako erantzunak. Horrexegatik, irudimena lantzeari eta bestelako errealtateak imajinatzeari sekulako garrantzia ematen diote, eta, maiz, artistak eramaten dituzte eskoletara eta erresidentzia artistikoen antzekoak egiten dituzte: “Artistekin egiten dugun lanketa horren bidez, bestelako subjektibitateak lantzen saiatzen gara. Agian ez dugulako erabaki behar futbol zelai bat edo bankuak jarri nahi ditugun gure patioan, baizik eta asmatu behar dugulako beste zerbait erabat diferentea, gure barneko premia, nahi eta desioen isla izango dena”. Arte sorkuntzak horretan laguntzen die. “Modu iraunkorrean egiten dute lan artistek eskoletan. Hala, beste harreman mota bat sortzen da, bai eskolaren eta artistaren artean, bai artistaren eta umeen artean, eta baita umeen eta eskolaren artean ere. Horrek patioaren eraldaketan eskola-komunitate osoari beste modu batera inplikatzeko aukera ematen dio”, gaineratzen du Abasolok.

Abarrategik azpimarratzen duenez, artearen lanketa balio die, era berean, utopiaren mundura jauzi egiteko eta beste era bateko errealtateak irudikatzen hasteko. Izan ere, ohikoa izan ohi da espazioaren eraldake fisikoarekin “obsesionatzea”, jabetu barik askotan aldaketa oso txiki-kin ideia mailan eta jarduera mailan iraultza handia egin daitekeela: “Sarri, *hardware*-ari soilik erreparatzen diogu,

GAIA: ESKOLAKO PATIOA

Ikasle guztiei leku egin nahian

baina *software*-an ere arreta jarriz —harremanetan, arae-tan, espazio horretan egiten diren jolasetan, materiale-tan... —, sekulako aldaketak etor daitezke”. Azpiegiturak aldatzea soilik helburu izatea edota ahalik eta baliabide gehien jartzea patioan, etxea teilatutik eraikitzen hasia bezala litzatekeela diote, patioaren eraldaketarako funtsa bertan dauden pertsonen artean eraikitzen diren harremanak lirakeelako. Beraz, patioaren inguruan edozein eraldaketa prozesu hasi baino lehen, abiapuntuko galdera batekin hasia proposatzen dute Abarrategik, Abasolok eta Larramendik: Zer-nolako harremanak sustatu nahi ditugu patio orduetan? Zer-nolako dinamikak emango dira patio kolektiboaren baitan?

Horregeatik, prozesuan zehar ariketa asko egiten dituzte indibidualitatearekin eta kolektibitatearekin loturiko desioak lantzeko. “Niri zer gustatzen zait egitea? Eta non egoten naiz patioan? Norekin? Nola sentitzen naiz eroso? Era horretako galderak egiten ditugu aztertzeko eskenatoki desiratu horretaz umeez zer esaten duten. Diagnostiko horretan behin eta berriz ikusi duguna izan da badagoela gehiengo bat patioaren periferian egoten dena, talde txikitik, apur bat baztertuta balego moduan; eta, bestetik, badagoela ikasleen zati txikiago bat patioaren azalera osoa erabiltzen duena, normalki futbol-zelai gisara. Horiek dira aktiboak, protagonismoa daukatenak, gizonezkoak, autoritatea esleitzen zaienak... eta beste guztia dago horren mende. Futbolaren logikatik kanpo dauden jolas eta jokoa, normalki, bazterrean geratzen dira, bigarren mailan, ikusgarritasunik gabe... eta horietan dabilzan haur eta nerabeak beste horrenbeste. Beraz, gu ahalegintzen gara beste jolas horiek ere zentralitatea har dezaten eta periferian dauden pertsona horiek ere erdigunera igaro daitezen zer egin behar dugun ikusten”.

Izan ere, Elkartoki proiektuaren bidez ikertu ahal izan dutenez, askotan, periferian egoten diren haur eta nerabe horiek ez dute parte hartzen, ez dute jolasten, ez dira aktibo... baina Tipi Studioko kideen esanetan, hori maiz gertatzen da horretarako aukerarik ez dutelako, ez zaielako eskubide hori aitortzen, eta ez delako guztien parte-hartze hori ahalbidetuko duen errealitaterik sortzen. Aldiz, patioa imajinatu ahaliko balitz herriko plaza baten antzerako, elkartruckerako espazio publiko baten gisara, parke baten moduan, naturarekin harremanean dagoena eta abenturarako aukerak ematen dituena... akaso kontuak beste era batekoak izango lirake. “Horregeatik da garrantzitsua utopiak eraikitzea eta utopien diseinu horretan haurrei protagonismoa ematea. Baina horrez

gain, eskola bakoitzak bere proiektu pedagogikoaren arabera zer-nolako utopia daukan ere ikertu behar da, patioa txertatuta egon behar delako eskola bakoitzeko proiektu pedagogikoan”.

Zein ezaugarri izan beharko litzuke patio desiragarri batek?

Eskola zenbaitetan hasiak dira, futbolaz gaindi, bestelako kirol batzuk ere sustatzen patio orduetan, hala haur guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten. Beste ikastetxe zenbaitetan azpiegiturak dibertsifikatzeko lanean dihardute, sinetsita adin bakoitzeko beharrei erantzun behar zaiela eta baita ikasleen aniztasun osoari ere. Zentzu horretan, patioa ikastetxeko espazio hezitzaile bat gehiago gisara hartzeko saiakerak badira. Jabeturik, gainera, aire librean dagoen eremu bat denez, gune pribilegiatua izan daitekeela zenbait esperientzia bizitzeko eta hainbat ikaskuntza barneratzeko, beti ere, ume guztien etapa diferenteetako premiei erantzuten saiatuz. Adituek patio bat eraldatzeko edo eraikitzeko orduan kontuan izan beharreko hainbat ezaugarri nabarmentzen dituzte:

- **Mugimendua sustatuko duten espazioak:** Haur askok euren psikomotrizitatea garatzeko eta mugitzeko aukera emango dieten eremuak behar izaten dituzte. Horretarako eskalatzeko guneak, korrika egitekoak, saltoka ibiltzekoak, zirkuitu ezberdinak... jartzea gomendatzen dute.
- **Espazio naturalak eta hondartegia:** Bereziki eskolako lehen urteetan naturarekin kontaktua izatea garrantzitsua da; horretarako, eskolako patioan espazio berdeei leku egin dakieke eta egurrez, landarez, harriz... hornitu. Zentzu horretan, jolaserako, esploraziorako eta esperientziazko indibidual nahiz kolektiborako aukera handia ematen duen eremua hondartegia izan ohi da. Eskola zenbaitetan, berriz, baratzak ezartzen ere ari dira naturaren eta bizitzaren zikloak esperimintatzeko ez ezik, zaintzen ikasteko ere balio dutelako.
- **Jolas sinbolikorako eremuak:** Haurren garapeneko fase batean jolas-sinbolikoak berebiziko garrantzia hartzen du, eta, beraz, ahal izanez gero horretarako eremuak ezartzea aholkatzen dute adituek. Beti ere, material egituratu gabeak eta naturalak lehenetsiz; eta aldi berean, era bateko zein besteko txokoak, gordelekuak eta intimitatean egoteko eremuak sortuz.
- **Kirol eta jolas desberdinak:** Patioan futbolaz gain, bestelako kirolak ez ezik, belaunaldiz belaunaldi transmititu diren jolasak egiteko aukerak irekitzea ere

GAIA: ESKOLAKO PATIOA

egokia izan daiteke; hala nola, soka-saltoa, ezkutaketako jolasak, harrapaketakoak, pilotakoak...

- **Mahai jokoak eta jolas lasaiak:** Oro har gelan geldirik egon arren, patio orduan ere haur zenbait nahiago izaten dute lasai egotea, pasiatzea edo kontutan aritzea. Denbora libre hori modu ludikoan eta lasaian igarotzeko ezin egokiagoak izan daitezke mahai-jokoak, eskola gehienetan eskuragarri izan ohi direnak. Eta aukera bat izan liteke horiek patioara ateratzea.

Azken batean, Elkartoki egitasmoko kideek azpimarratzen duten moduan, xedea da patioari garrantzia ematea eta espazio hori denona dela ulertzea; eta beraz, denen premiei erantzuteko moduak bilatzen eta haur guztiak barne hartuko dituen eremuak eraikitzen ahalegintzea. Horrexegatik, zuzenean eskola komunitateko partaideekin, eta bereziki ikasleekin lan egiten duten arren, Elkartokiren baitan hainbat irizpide izaten dituzte kontuan patioen lanketa egiterako orduan. Irizpide horietako bat da genero berdintasuna: “Elkartokiren prozesu batek ikasleek ezingo lukete diseinatu belar artifizialdun futbol-zelai bat, ez litzatekeelako inklusioa, alegia, ez lukeelako eskolako aniztasuna barne hartuko”. Bigarrenik, prozesua esperimentaziozkoa izatea ere ezinbestekoa da: “Esperimentala diogunean ez gara ari esaten edozein erokeriari bide eman behar diogunik, baina bai akaso ohiko dinamiketarik atera eta beste era bateko espazioak irudikatzen ahalegindu behar dugula”. Haur zein nera-

beak zentroan jartzea da hirugarren eta azken irizpide nagusia: “Umeak izango dira edukiz betetzen dutenak espazio hori, hau da, esango dutenak zer-nolako espazioa nahi duten, eta erabakitzea ere euren esku egongo da”. Prozesu horrek berak eraldaketa dakar sarri, harreman horizontalagoak sortzen direlako eta ordura arte isilik egon diren ahotsak entzun egiten direlako.

Eta ikastetxeetan patioaren inguruan egiten den lanketak badu eraginik. Getxoko San Nikolas ikastolan, esaterako, bost patioetatik hirutan egin zuten eraldaketa-prozesua ikasleekin. Patio horiek guztiz planoak ziren, porlanezkoak, altzaririk gabekoak —pare bat saski besterik ez— ... Ikasleek eurek, patioa apaintzeaz gainera, hainbat elementu sortu zituzten eta “patioa kolonizatu” zuten, baloia albo batera utzi eta ordura arte egiten ez zituzten joko eta jolasak egin ahal izateko. Prozesuak horrenbesteko eragina izan du, ezen umeek eurek eskatu baitute oraintsu baloirik ez egotea patioan, edota behintzat espazioaren zati bat futbolik gabeko gune izatea. “Prozesuari esker badago eragina espazioan, baina espazioaren eraldaketak berak ere utzi du arrastorik proiektuan parte hartu duten kideengan. Izan ere, Elkartoki proiektuaren bidez beste modu batean egoteko eta jardutego guneak sortu ditugu. Futbolaren zentralitatea apurtu dugu, baina ez hori bakarrik, haurrak eurak ere jabetu dira espazioaren garrantziaz eta ulertu dute hor eragin dezaketela eta erabakiak hartu, eta badaudela baloiaren zentralitate-tik harago egin ditzaketen beste gauza batzuk”.



Sestaoko Kueto eskolako ikasleak patioa eraldatzeko sorkuntza-prozesuan.

Bi eskola, eraldatzeko bi modu

Haur Hezkuntzako jardunean egiten hasi ziren al-daketa metodologikoaren harira jarri zuten eskolako jolastokiaren gaia mahai gainean Azpeitiko Karmelo Etxegarai Ikastolan. Era berean, Azpeitiaren, Azkoitiaren eta Zestoaren arteko hezkidetzaren foroan ere patioaren gaiak hausnartzen jardunak ziren, ikusirik ikasle batzuen beharrei edo nahiei soilik erantzuten ziela eta ez zuela aniztasuna kontuan hartzen. “Pedagogiaren eta metodologiaren inguruan gogoeta egiten hasi ginenean argi ikusi genuen guretzat jolastokiak hezkuntza proiektuan txertaturiko zerbait izan behar zuela, eta ez orduerdi bertan igarotzeko eta gela barruan pilatutako energia guztia kanporatzeko toki bat soilik”, dio Mikel Olaizola Karmelo Etxegaraiko aholkulariak. Hala, zementuan oinarritutako HHko patioa —gutziz irekia, jolas erabat bideratua sustatzen zuena, ezkutatzeko eta intimitaterako lekurik ez zeukana, naturako elementurik gabea...—, erabat eraldatu dute hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzearekin, Udalaren laguntzarekin eta Elkartoki proiektuaren aholkularitzapean. Orain, organikoa da: zuhaitzak eta berdeguneak ditu; egurrak, harriak eta hondartegia; landareak eta baratza; rokodromoa, aldapak eta txirristra; elementu ez egituratuak; eta eremu zabalxeago bat —nahi bada futboleko edo beste kirol nahiz jokoren batean jarduteko—.



Karmelo Etxegaraiko haur eta gurasoak auzolanean.

“Haurren premietan oinarritzen saiatu gara, ume guztiei leku egiten, zuzendu gabeko jolasa nahiz manipulazioa sustatzen, adin desberdinetako umeen arteko harremanak ahalbideratzen eta imajinazioari toki egiten”.

Hasierako asmoa Haur Hezkuntzako nahiz Lehen Hezkuntzako patioak, biak, eraldatzea bazen ere, momentuz, HHkoan soilik egin ahal izan dute birmoldaketa, besteak beste, LHkoan bi futbol-zelai eta beste bi saskibaloiko kantxa daudelako eta arratsaldetan nahiz asteburuetan beroietan eskola-kiroleko jarduerak egiten direlako. “Aspaldi hasi ginen LHn ere ‘baloirik gabeko eguna’ ekimenarekin, jolas kooperatiboekin eta patiorako bestelako alternatibekin. Baina ikusi genuen motz geratzen zela, balio sinbolikoa zuela beste ezer baino gehiago, eta horregatik nahi izan dugu al-daketa LHko patioa ere eraman. Baina momentuz, bere horretan uztea erabaki dugu, gure eskumenekoak ez diren beste auzi batzuk ere tartean sartzen direlako”.

Hala, Haur Hezkuntzako patioaren gaiari heldu zioten Karmelo Etxegarai Ikastolan. Proiektu bat idatzi zuten eta Udalera jo zuten aurkeztera, eskolako azpiegiturak harenak baitira. Hasierako proiektuan hainbat irizpide orokor idatzi zituzten: berdeguneak edukitzea, jolas aniztasunari bide ematea, mugimendua sustatzea... baina hasierako zirriborroa eraldaketa guztia dirutan zenbat kostatzen zitekeen pentsatu gabe idatzi zuten. “Gure proposamena izan zen Udalak baliabide ekonomikoak jartzea eta gainontzekoa auzolanean egitea. Eta gure proiektuak oso harrera ona izan zuen Udalean”.

Udalarekin negoziazio horietan ari zirela Elkartokiko proposamena jaso zuten, eta hasiera batean hura LH eta DBHra zuzenduta bazegoen ere, proiektua bidali eta parte hartzeko eskaria egitea erabaki zuten. Bereziki, parte-hartze prozesua bideratu zuten Elkartokiko kideek. Karmelo Etxegaraiko patioaren eraldaketak abiapuntua zuzendaritza-taldean izan bazuen ere, irakasleak, ikasleak zein gurasoak, guztiak izan ditu partaide. Irakasleen artean egin zuten lanketa lehenik eta gero haiek hurrekin gaiak hitz egiten hasi ziren, eta kanpora irtenda gogoeta egiten:

zein txoko gustatzen zitzairen gehien, non ibiltzen ziren jolasean, non sentitzen ziren hobekien, zer gauza gehiago egin eta eduki nahiko lituzketen patioan... “Ametsetako irudikapenak egin zituzten haurrek irakasleen laguntzaz”. Azkenik, gurasoek ere parte hartu zuten patio berriaren diseinuan, eta bereziki auzolanean: “Gurasoei deia egin genien eta 80 lagun etorri ziren, sekulako jakinminarekin, eraldaketarako gogoarekin eta auzolanerako grinarekin: ‘Ni arotza naiz eta hau eta hura egin dezaket’; ‘nik halako lantokitara lan egiten dut eta material hau ekar dezaket’; ‘ni auzolan egunean pintaketa lanak egiteko prest nago’...”. Hala, lan-taldeak osatu ziren eta bakoitzak bere egitekoari heldu zion: rokodromoa ideatzea, baratza atontzea, egurra lantzea... Prozesuak, ordea, frustraziotik izan du; Olaizolak azaltzen duen eran, patioaren inguruan gogoeta sakona egin ostean, eta ideia eta diseinu asko landu ondoren, irudikatutako eta amestutako dena ezin izan delako aurrera eramanean, segurtasun kontuak eta legedia tarteko.

Edozein kasutan, patioaren eraldaketak eman duen emaitzarekin oso gustura daude Karmelo Etxegarain, ikusi dutelako patioan haurrak sosegu handiagoz dabilzala, liskarrak gutxitu direla, jolas mota gehiagotan aritzen direla, naturarekin kontaktuan daudela, goxoago daudela, arratsaldetan ere erabiltzen dela... eta espero dute egunen batean eskolako eremu bat gehiago izatea, haurrek, barne-espazioak bezalaxe, kanpo espazioa ere nahieran erabil dezaten. “Filosofiak aldaketa ekarri du patioan, baina patrioko aldaketak berak ere aldaketa filosofikoa eta ideologikoa ekarri du. Gainera, urtebeteko bizipenen plaza bihurtu zaigu jolastokia: batzarrak egin ditugu bertan, informazio saioak, tailerrak, auzolanak, askariak... Barre egin dugu elkarrekin, jolas, eta zertarako uka, noiz edo noiz haserre ere irten gara bertatik. Baina horrek ez digu lanerako gogorik kendu. Gurasoak ikastolara gerturatu ditugu eta elkarrekin eskuz-esku lanean aritu gara, ikastolako komunitatea osatzeari ekin diogu. Ez dadila azken aldia izan. Eraldaketa prozesua ez da amaitu, etengabea izango da, norbaitek kezkarik edo proposamenik balu, gerturatu eta hitz egingo dugu”.

Ikasbidea Ikastolan, prozesua mamitzen

Batxilergoko 2. mailako Antropologiako ikasleen proiektu baten harira hasi ziren Duranako Ikasbidea Ikastolan patioaren gaia lantzen. Hain zuzen ere, duela bi ikasturte Antropologiako ikasleek irakasleari proposatu zioten atsedendietan ikastetxean gertatzen zenari buruz ikerketa bat egin nahi zutela, eta, ahal izanez gero, patrioko egoera eta elkarbizitza hobetu. Azkerketaren abiapuntu

gisara, ikasleek zioten ikastetxeko jolastokia oso espazio garrantzitsua dela bizikidetzarako, eta beraz, bertan gertatzen den guztiari arreta jarri behar zaiola, eskolako kideen arteko harremanak osasuntsuak izango badira. “Uneotan patioa ez da espazio neutro bat, eta bertan era bateko zein besteko botere-harremanak ematen dira. Ikasbideako jolastokia ez dute ikasle guzkiek modu berean erabiltzen: mutilak (vs. neskek) eta nagusiak (vs. txikiak) espazio horretako ‘jabeak’ dira”.

Begoña Diez Ikasbideako zuzendariak adierazten duen eran, aurrez —orain dela lau urte inguru— bizikidetzat batzordetik abiatutako lanari jarraipena eman zioten Antropologiako ikasleek. Bi ondorio nagusi nabarmendu izan dira azterketotan: batetik, batez ere emakumezkoek patio orduetan nahiago dutela zentro barruan geratu; eta, bestetik, jolastokiko jardun guztia futbolaren inguruan dagoela egituratua eta kirol horretan dihardutenek dutela zentralitate osoa. Eta errealitate horri buelta emateko, soluziobide gisara, bi aldaketa nagusi ere planteatu zituzten Antropologiako ikasleek: batetik, kirol kantxak lekuz mugitzea, alegia, patio nagusitik —ikasleak eskolako eraikinetik irteten direnean jolastoki horretara ateratzen dira zuzenean— atzeko patriora mugitzea; eta, bestetik, kanpoaldean aterpeak jartzea euria egiten duenerako. “Oso planteamendu logikoak eta egingarriak iruditu zitzaizkigun. Baina, behin planteamendu hori mahai gainean izanda, eta Bigarren Hezkuntzatik ez ezik, Lehen Hezkuntzatik eta Haur Hezkuntzatik zetozen beharrezanez ere erantzun nahian, patioaren gaiari modu sakonagoan heltzea erabaki genuen, benetako eraldaketa filosofiko nahiz fisikoa gauzatzeko xedez”. Izan ere, Maria Monton HHko eta LHko ikasketa buruak erantzen duen moduan, zirkulazio librean oinarrituta Haur Hezkuntzan egiten ari diren aldaketak ere jolastokia birpentsatzea eskatzen du, “patioa ere esparru hezitzaile bat izan dadila, eta ez haurrak hor utzi eta korrika egiteko eremu bat”.

Hala, Antropologiako ikasleek egindako proiektua klaustrora eramanean zuten eta irakasle guztien eskura jarri zuten. Bigarren Hezkuntzako irakasleek ez ezik, Lehen Hezkuntzakoek nahiz Haur Hezkuntzakoek ere parte hartu ahal izan zezaten patioaren gaiari buruzko gogoe-tan. Horretan zebiltzala, Nondik Arkitektura Estudioaren proposamen bat jaso zuten, patioaren eraldaketa jorratzeko proiektu bat planteatuz, eta uneotan horretantxe ari dira. Irakasleen artean parte-hartze prozesu bat egin dute jada eta hurrengo urrats gisa, ikasleekin egingo dute gauza bera. Eta behin patioaren giagnosia egin eta birmoldaketarako ideiak jaso ostean, eraldaketa prozesuari ekingo diote.



“Ikasleen begietan, irakasle on batek egiten duenarekiko maitasun moduko bat transmititu behar luke, pasioa, emozioa”

ELKARRIZKETA: NORA SALBOTX

NUP-EKO IRAKASLEA MAGISTERIO ESKOLAN ETA SINDIKALISTA

Behetik gora ekinez eta txikitik eraginez urratu du bidea Nora Salbotxek (Iruñea, 1973), eta esperientzia oparoa pilatu du hezkuntzaren arloan: Amaiurko eskola txikian irakasle hastapenean; eta irakasleen formakuntzan ondoren —Mondragon Unibertsitatean nahiz Nafarroako Unibertsitate Publikoan—. Herrigintzan ere urte luzez aritu da lanean: batetik, Baztan oinarri harturik, “Herri hezitzailea, eskola herritarra”

egitasmoaren bidez Euskal Herri osoan eragiten; eta bestetik, sindikalgintzan. Magisterioko eta psikopedagogiako unibertsitate ikasketak edukitzeaz gainera, landa eremuko eskolen gaian nahiz komunikazioarenean espezializatu da. Eta beste ororen gainera, hezkuntzaren inguruko ikuspegi humanista garatu du. Beti ere, jarrera baikor batekin eta euskal hezkuntza nazionala eraikitzea jomuga hartuta.



Amaiurko eskola txikiko zuzendari izan zara urte luzez, gero irakasleen prestakuntzara egin duzu jauzi —Mondragon Unibertsitatean lehenik eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan ondoren—, sindikalgintzan ere bazabiltza, “Herri Hezitzailea Eskola Herritarra” egitasmoko eragileetako bat zara... Esperientzia luze-zabal horrek eman diezazukeen ikuspegitik, gaur egun euskal eskolak zein erronka nagusi dituela esango zenuke?

Herri mailako kontsentsu edo akordio bat egitea ezinbertzekoa eta premiazkoa da nire ustez. Eta akordio horrek hezitzailea behar luke izan, balioetan oinarritu beharko litzateke, eta beraz, politikoa izango litzateke. Politikoa bai, baina inondik inora ere ez partidista. Politikoa diot akordio horrek talde-herri-komunitate bati eraginen lioketen erabakiak hartzeko tresna izan behar lukeelako.

Nire ustez, hezkuntza akordio hezitzaile batez ari garelarik, hala-beharrez, hainbat oinarritzko balio edo zutabe kontuan izan beharko lirateke. Hasteko eta behin, haurra subjektu politiko gisa hauteman be-

har da. Haur sendo, aberats eta gaitu bat eraiki behar dugu gure begirada kolektiboan. Konturatu behar dugu errealitatearen interpretazio irudimentsu zoragarriak egiteko gai dela haurra. Gaur egun, ordea, askotan, kontrakoa egiten dugu: estatuen onuradun den subjektu pasibo gisa irudikatzen dugu haurra, ahula eta ezgauza den norbait bezala. Bada, ongintzako begirada hori gaintutuko duen ordezkotako bat aldarrikatu nahiko nuke nik. Haur ekintzaile batez ari naiz, zeinak ahaldunduta eta antolatuta, gure jendarte honen onurarako hainbat ekarpen egin ditzakeen. Ongizate kolektiboari ekarpena egingo dion haurra, nerabea, gaztea izan behar genuke jomugan; ekarpen inklusiboak egingo dituen gaur egungo jendartean periferikoak diren izate horiek guztiak barnebiltzeko egokiak izan daitezkeenak.

Bestetik, errespetua, berdintasuna eta aniztasuna izan behar genituzke ardatz. Hezitzailea dena etikoa delako. Duintasuna, eskuzabaltasuna, ekintzailetasuna, harreman orekatuen aldeko sena, hezkidetzatza, inklusioa... ere sustatu behar lituzke hezkuntza akordio horrek.

Eta pertsamendu dibergentea indartu beharko luke, pertsona kritikoak hezteko. Finean, askapen kolektibo zein pertsonalerako balioko lukeen heziketa mota dut gogoan.

Eta, bi zutabe horiekin batera kontuan izan beharreko beste bat partaidetza da: gobernantza eredu berriak, erabaki guneen demokratizazioa, auzolana... Finean, gobernu modu herritarra landu behar dugu, umeei ere ahotsa emango diena eta erabakiak hartzerako orduan leku bat egingo diena. Eta horrekin batera, tokiko erakundeek kudeatutako hezkuntza aldarrikatu nahiko nuke, horiek direlako pertsonengandik hurbilen daudenak, ergonomikoak direnak, pertsonen neurritan egingo direnak eta inguruko beharrak hobekien ezagutzen dituztenak. Eta aldi berean, baita ere, erakunde horiek komunitate horretako kideek eurek kudeatzen dituztelako, behetik gora herritarren ordezkari hartuta.

Errealitatea asko aldatu da urte gutxian: Interneten eztanda, bizi-tzaren abiada, superestimulazioa, ziurgabetasuna, likidotasuna... Horrek guztiak haurraren bera-

ren ikuspegia ere aldatzea ekarri du. Eskolak jakin al du errealitate berri horretara egokitzen? Zentzu horretan zein litzateke gaur egun eskolaren papera? Kontuan izanik denok onartzen dugula ezin dela izan edukien transmisore huts, edota haurrek eskolaz kanpo eskolan bezainbeste ikas dezaketela.

Jendarteak aldatu da, ados. Eskola ez da behar zen abiatu egokitu, horretan ere ados. Nik ez dut bat egiten hala ere postmodernoen diskurtso zenbaitekin eta ez dut sinesten likidotasan honetan dena hain erlatibo denik. Posmodernitatearen edo denbora likidoaren diskurtsoaren aitzinean badira gain-modernitateaz edota kontrol jendarteaz solas egitea nahiago duten autoreak ere. Nik ere benetan uste dut gizarte diskurtso postmodernoen irudikatzen dutena bezain hibridoa eta konplexua dela. Alta, autore postmodernoen diote gizarte likidoan errelato handiak amaitu egin direla, eta nik ez dut partekatzen ikuspegi hori, eta hain zuzen ere, gaurko errealitate hibrido eta konplexu honetan, errelato handiek, era batera edota bertzerak — berreraikita, moldatuta, batzuetan moztuta ere bai —, hortxe darratela uste dut.

Behin hori adierazita, erranen nuke baietz, haurra aldatu dela, edota geuk aldatu dugula erran beharko genuke, akaso. Gehiago dakigun heinean orain arte ezezagun zitzaizkigun afera eta ezaugarri aunitzen gainean lupa jartzeko aukera dugu, baina horrekin batera, haurren bizitzetan injerentzia handiagoz jokatzeko dugula ere erranen nuke. Espazioa, jolasa, intimitatea, denbora... mugatu dizkiegu, kontrolpean jarri ditugu eta hori ez zait inolako garapena edota aurrerapena iruditzen, kontrakoa baizik.

Eta eskolaren paperari buruz galdegin didazunez, tira, eskola laguntzaile bat izan beharko litzateke, umeei ikertzeko, mundua ezagutzeko — bere inguru hurbiletik hasita eta antipodetako edozein txokotaraino — eta bertzeekin interakzionatzeko aukerak ematen dizkiena. Beti ere jakinik haurra subjektu aktibo bat dela, bere garapenaren eraikuntzaren protagonista, eta, beraz, gure lana hori gerta-

dadin aukerak eta egoerak eskaintzea litzatekeela.

Amaitzeko, iruditzen zait gaur egungo eskolak komunikazioa bertze paradigma batzuetan oinarritu behar lukeela, zeinetan isilik egotea ez den meritu bezala konputatzen duen jarrera bat, baldin eta pertsona batek zeozer errateko badu. Eta zeinetan emaile-hartzaile eskema konduktista hura gaintzen den eta edukomunikazioaren praktikan sakontzen baitugun. Izan ere, jada alde batean igorlea eta bestean hartzailea dagoen eskemak — zeinetan komunikazioa alde bakarrekoa den — ez digu balio. Eredu horretan oinarritu izan da gure eskola. Baina, gaur egun, badakigu komunikazioa ez dela alde bakarrekoa. Erpin batean igorle-hartzaile bat egon daiteke eta bestean beste igortze-hartzaile bat, eta ondorioz, komunikazioa bi aldetakoa edota alde anitzekoa da. Gainera, igorleak bidaltzen duen mezua hartzaileak bere galbahetik pasako du beti, alegia, hartzaile subjektu aktibo den eredu batez ari gara, eta horrek irakaskuntzan berebiziko garrantzia du. Beraz, geletako eskema lineal eta transmisibo horiei aldeanitzeko eredu parte-hartzaile, malgu eta horizontalekin ihardestea litzateke xedea, eta ikaslea komunikatzaile bilakatzea.

Zentzu horretan, eta egungo errealitatea hobetzea helburua hartuta, ezagutzen ote dugu behar beste haurra? Eta haurraren kultura? Eta zenbateraino jarri dira praktikan eskola berriaren ideiak?

Plano teorikoan akaso bai, inoiz ez bezala ezagutzen da haurra hainbat zientzia eta alorretatik begiratuta. Gaur egun, gainera, neurozientziarenak gehitu zaizkie aitzinetik genituen teoria guzti horiei.

Alde batetik, ezagutza horiek guztiak ez elkar-erlazionatzen, eta beraz, ikuspegi holistiko batez ez ematek etor daiteke arazoa. Ezagutzaren zatiketa, jendarte honetan ematen diren bertze hainbat zatiketa bezalaxe, interes batzuen onurarako egin da, ez justizia sozialaren edota berdintasunaren mesedetan preseski. Hain zuzen ere, pertsona eta jendar-

“Haurra subjektu politiko gisa hauteman behar da. Haur sendo, aberats eta gaitu bat eraiki behar dugu gure begirada kolektiboan”

“Erranen nuke haurra aldatu egin dela, edota beharbada, geuk aldatu dugula. Eta haurrari buruz gehiago dakigun heinean, orain arte ezezagun zitzaizkigun afera eta ezaugarri aunitzen gainean lupa jartzeko aukera dugu, baina horrekin batera haurren bizitzetan injerentzia handiagoz jokatzeko dugula ere erranen nuke. Espazioa, jolasa, intimitatea, denbora... mugatu dizkiegu, kontrolpean jarri ditugu eta hori ez zait inolako garapena iruditzen”



tea justu kontrakoa delako, eta modu osoan, globalean funtzionatu behar duelako, baldin eta osasuntsu egongo bada.

Haurraren kulturaz, berriz, eta horrek dakartzan ondorio politikoei, pedagogikoei, kulturalari... —inklusio urbanistikoei— buruz deus gutxi dakigu oraindik. Edozein eratar, positiboa naiz zentzu horretan ere, batetik, ikusten ditudalako Euskal Herrian han eta hemen esperientzia solte franko bide horretan apuntatzen dutenak, eta bertzalde, OinHerri (“Herri hezitzailea, eskola herritarra” egitasmoa) eta gisako eragileei esker gaia sozializatzen hasia delakoz.

Eskola berria, teoriar, denok praktikatzeko dugu. Maisu-maistrei beren lan ereduaz galdetzen zitzairen ikerketa interesgarri bat egin zen.

Ikertaldean ziren, bertzeak bertze, HUHEZIKo Mariam Bilbatua eta Kataluniako Ana Teberovsky. Ez da kasualitatea Euskal Herrian jasotako inkestetan bere burua konstruktibismoan lerratzen zuen hainbertze jende agertu izana, bistan da ezetz. Honek bere alde ona eta bere alde txarra dituela erranen nuke. Alde ona litzateke jabetzea hemen ontzat ez dugula edozer gauza edota edozein praktika hartzen. Politikoki zuzena hori delakoz bada ere, badirudi maisu-maistrok ez dugula eredu tradizionaletan lerratu nahi eta hori lan bat egin denaren seinale da, eta erakusten du badela gauzak hobetzeko grina. Alde txarra ere ikusten diot, ordea: autokonplazentzian erortzekoa, hain zuzen. “Dagoeneko nik ongi egiten dut, ni konstruktibista naiz” leloan

gelditzea horren sakoneko esanahietara eta ondorioetara joan gabe.

Eskolak, oro har esan baliteke, erantzuten al dio haurraren kulturari/interesari/beharrari? Zertan ikusten duzu baietz eta zertan ezetz? Adibide zehatzik jartzerik bai zure esperientziatik?

Modu ez antolatatu batean nahi bada, baina haurraren kultura horri erantzun behararen edo nahiaren adierazpide aunitz badira han eta hemen. Bai hezkuntza formalaren kontestuan bai eta hortik kanpora aisialdi edota arte eta kultur emankizun eta adierazpide askoren testuinguruan ere.

Beraz nik uste dut gure lehen erronka hori dena jostetik letorkeela. Han eta hemen gertatzen ari diren esperientzia eta jarduera hezitzaile zoragarri horiek guztiak ikuspegi beraren baitako jarduerak direla ulertaraziko digun diskurtso bat behar dugu. Abiapuntu horretatik hasita problematizatu behar dugu afera hau, eta hori izango da gero kontzientziaziora eta antolaketa igarotzeko bidea.

Uneotan, irakaslegaiekin ere ari zara lanean. Etorkizuneko irakasleen formatzaile zara NUPen. Psikologo zein pedagogo gehienak bat datoz esatean irakasle bakarrak miraririk ez, baina asko eragin dezakeela haurraren garapenean. Hori hala, zein ezaugarri izan behar ditu zure ustez irakasle on batek? Eta zuri dagokizun arloan, zein jakintza nagusi barneratuarazten saiatzen zara irakaslegai?

Bada galdera honen lehen zatiari erantzuteko ikasleek berek erraten dizkidanak ekarri nahiko nituzke hasteko: haietzako irakasle on batek bere gaiarekiko maitasun moduko bat transmititu behar luke, pasioa, emozioa. Gaiak jakiteaz gain, erakutsi behar luke hura gogoko duela, alegia, egiten ari den hori bizi duela. Gogo edo pasio hau klaseetan transmititzen duten irakasleak dituzte gustukoaren ikasleek. Era horretako irakasleekin motibatzen direla diote.

Ene ustean, teoria eta praktikaren arteko loturak egitea garrantzitsua da unibertsitatean ari garelarik. Batetik,

sinesgarritasuna ematen diolako ezdukiari, bizitza errearekin konfrontatzen duelako teoria. Bertzalde, ekintza bidezko ikerketaren gaitasun eraldatzailea handia delako, dudarik gabe.

Galdera honek Mari Carmen Navaroren lan batean jasotako pasadizo bat ere badakarkit burura. Izan ere, irakasle on batek izan behar dituen gaitasunei buruz galdegin ziren behin bere Haur Hezkuntzako gelako haurrei, magisteritzako praktikak egiten zebilen ikasle baten presentziaren karietara. Maiz zerrendatzen ohi ditugu XXI. mendeko hezitzaileen kualitateak, hor ez nuke ekarpen berri handirik egiten; beraz, Haur Hezkuntzako umeei errandakoak gogoraraztea interesgarriagoa deritzot, aldarrikatzen dugun haur indartsu, gaitu, eta aberats horrek errandakoak, hain zuzen, teoria zoragarriak egiteko gauza den ume horrek gogorarazten dizkigunak, alegia.

Beraz, haiek eskatutakoari ikusgaitasuna emate aldera hauexek ziren orduko hartan eskatzen zituztenak: “Irakasleak haurren izenak jakin behar ditu, aldika errieta egin behar du, olerkiak idatzi, gurasoei haurren sekretu zenbait kontatu, dantza, kantua eta antzerkia egin behar ditu, lan politak ere bai, ipuinak kontatu, triste dauden haurrak animatu, haurrak erlaxatzen lagundu eta haiekin egunero egunero solas egin”. Zein xumeak eta zein sakonak diren aldi berean irakasleok izan behar genituzkeen ezaugarriak, ezta?

Eta eskolak dituen erronka berriei erantzuteko, nola joan etengabe hobetzen? Duela 20 urteko irakasle batek adibidez nola barnera ditzake erronka berri horiek? Nola eskuratu tresna berriak? Etengabeko formazioaz hitz egiten dugu, baina zer nolako formazioa, barnetik pasatzen ez bada?

Formazio piloa egiten da, eta egiten den guzti horretatik asko, gehiegi akaso, kaxoi batera doa zuzenean. Izan ere, arestian aipatutakoaren bitartek, teoria-praktika arteko loturarik ikustarazten ez zaigun heinean, zail zaigu ikasitako horretatik praktika eraldatzaile edota berritzaileak imple-

mentatzea. Nire ustez, saiakerak badira han eta hemen, baina funtsa zera da: formakuntzak ikastetxeetako eta geletako errealitatean izan beharko lukeela oinarria. Beraz, haietara joan, maisu-maistreakin egon, haien galdera, kezka eta arazoei buruz hitz egin eta hortik aitzinera formakuntza esanguratsu eta zinez praktiko bat eraiki, taldean, modu partekatuan eta egunerokoarekin elkarrekintzan; modu dialektikoan, beraz.

Erranen nuke XXI. menderako formakuntza IKTen erabileraren gaitasun on batekin erlazionatu dela, ohartu gabe gela interaktiboaz solas egitea afera preteknologiko bat dela, interaktibotasuna komunikazio kontzeptu bat baita Marco Silvak aski ongi azaltzen duen moduan. Alegia, munduko teknologia guztia izan dezaket, baina ez badut aitortzen komunikazioa alde-anitzekoa dela, ari naiteke alde bakarreko mezu transmisioa sustatzen, interaktibotasun horren kaltean. IKTek bistan da, erraztu egiten digute interaktibitatea, lagundu dezakete alde anitzeko komunikazio horretan, baina bermatu ez du egiten. Eta kontuz! Ez dezagula ikuspegi teknokratiko eta akritiko bat erabili IKT horien sustapenean ere.

Errealitatea hori izanik, eta eskola txikien arloan duzun esperientzia eta jakituria lagun, zer ekarpen egin diezaioke hezkuntza-sistemari eskola txiki horien jarduteko moduak? (adina nahasian, proiektuak, lan, tailerrak, konstruktibismoa, familiariekiko harremanak, komunitatearen indarra...)

Urteak kosta zaigu eskola txikietako oi, landa eremuko hezitzaileoi, eskola graduatuaren egiteko modu eta diskurtso hegemoniko horren gainetik bertze eredu bat bazela azalaraztea, ikustaraztea. Lan bikain askori esker gaur bertze egoera batean gaudela bistan da. Gaurko egunean eskola graduatu hegemoniko horretatik ere hasi zaizkigu begiratzen, txikiak handiari zeozer erakusteko izan dezake-elakoan.

Pentsaezina zen hori duela zenbait urte, eskoletako sabaia erortzen zizkizkigun bitartean herrietan frontoi ikaragarriak egiten edo zahar be-

“Ezagutzaren zatiketa, jendarte honetan ematen diren bertze hainbat zatiketa bezalaxe, interes batzuen onurarako egin da, ez justizia soziala edota berdintasunaren mesedetan, preseski”

“Formakuntzak ikastetxeetako eta geletako errealitatean izan beharko luke oinarria. Beraz, haietara joan, maisu-maistreakin egon, haien galdera, kezka eta arazoei buruz hitz egin eta hortik aitzinera formakuntza esanguratsu eta zinez praktiko bat eraiki, taldean, modu partekatuan eta egunerokoarekin elkarrekintzan; modu dialektikoan, beraz”



rritzen ziren garaian, biharamunean ETBk partida bat ematera etortzeko baldintzak betez-edo.

Baina, tira... gatozen harira... ikerketetan garbi geratzen ari da arrakastako eredu eta praktikek ezaugarritzen duten aldagaietako bat adinartekotasuna dela. Egia erran, ikaskuntza, interakzioaren bitartez eta ezagutza asimetrikoak konfrontatzearen laguntzaz ematen dela garbi badugu, aterako genukeen lehen ondorioa zera litzateke: aniztasuna desiragarria eta hezitzailea dela. Haurra erdigunean jartzen duen eredu batean, alegia, sistemaren estrategia zatitzaileak edota XX. mende hasierako hezkuntza-sistemaren eskema gainditzen duen eredu batean, aniztasuna behar beharrezkoa dela argi erakusten du horrek. Adinartekotasunak bizitza errealekin zerikusia dauka eta aberasgarria da edozein ikuspuntutatik; berteak berte, berdinen arteko tutorizazioa eta elkarrekin-tza, norberaren eritmoekiko errespetua, autonomia eta komunikazioa baitakartz berekin.

Herri txikietan begibistakoa da eskola eta komunitatea elkar-elikatzen direla. Bestalde, behin eta berriz

errepikatzen da, haurren heziketa ez dela soilik eskolaren egiteko, eskolak bakarrik ezin duela, hor dagoela familia, baina hor dagoela baita ere herria: hor daudela eskolaz kanpoko jarduerak, aisialdiko ekintzak, haurrek kalean jolasean igarotzen duten denbora... Zein garrantzia du horietako bakoitzak? Eta nola bidera daiteke eragile horien guztien arteko elkarlana?

Elkarlanerako testuinguru naturala zure hurbileko hura denean eta harekiko irekita zaudenean, bertako taldekideen komunitate pertzepzioa lortzea da lehen helburua. Horretara zabalik egotea da zioa, eskola eta herria *continuum* baten modura uler-tzea eta, ahal den heinean, irakasle-ikasle-ikasle-ikasle eta irakas objektu hiruko didaktiko klasikoaren erdigunean ezarrita dugun epizentro hori desplazatzen saiatzea, figura geometriko berri baten bila, non hiruki horri herria, hizkuntza, bertako instituzio eta eragileak, natura eta gisako bertze erpin batzuk gehitzen dizkiogun.

Soziologo askok diote gaur egungo jendarte interkonektatu eta globalizatu honetan hiria eta herriaren arteko mugak lausoak direla, eta *continuum* bat dagoela bata bertzea lotzen, baina

hiria eta herriaren artean zerbaitetan alde nabaritzen bada, hori pertsonen arteko harremanetan eta komunikatze-ko moduetan antzematen dela. Kasu ikerketa batean behaketa bat egin genuen Baztango herri batean (txikia ez dut erranen hain erlatiboa baita neurriaren afera hura!). Bertako karrketan, harreman zoragarriak ikusi genituen, edozein aitzakiapean: mus tximista txapelketa, play partidak, eskolako irteera ordua, kantu afaria —baita auzo-konpostontzira zabor organikoa botatzera zihoazen uneetan ere— ... adineko amatxi bat pareko etxeko nerabearekin familiari buruz, eguraldiari buruz edo dena delakoari buruz solasean ikus daiteke, lasai asko. Modu naturalean, belaunaldien arteko etenari aurre egitea ohikoa da bertan. Horrela elikatzen dira elkar, eta elkarrengandik ikasten dute, bakoitzak bere hizkera eta ulerkerarekin, bistan da. Roberto Aparicik dio nahiko nabarmen konturatzen garela zerozer komunikatzen dugunean eduki zehatz horren ezagutza aurrez badakarrela komunikazio ariketa horrek berak, eta aldiz nekezago konturatzen garela zerozer horren sakoneko ezagutzara komunikazio ekintza horren bitartez

eta komunikazio horri esker iritsi garea. Beste hitz batzuetan esanda, zerbait komunikatzen ari garenean komunikatzen dugun horren gainean hausnartzen dugu eta edukia berreraikitzen dugu, sakoneko ezagutzetara iritsiz. Teoria horri, komunikazio hori belaunaldi artekoa izateak prozesua aberasten duela gehituko nioke nik.

Zure beste arloetako bat sindikal-gintza da. Nafarroako LABeko Hezkuntza arduraduna zara. Murrizketen aurka eta hezkuntzako profesionalen lan-baldintzen alde lan egitetik harago, sindikalgintzak zer ekarpen egiten dio hezkuntzari?

Sindikalgintza beti erlazionatu izan dugu lan esparruari dagokion alderdi klasiko horrekin. Egia da, hala ere, LABen duela 3 urte abiatu zela hausnarketa bat ikusten zelako sindikatutik ere hezkuntza politikan zerbait egiterik bazegoela, edota nolazpait ikusten zelako zerbait egiteko premia. Hezkuntzari loturiko hausnarketa horien bueltan ohartzen ginen, garai batean —80etako urte inguruetan eta— berrikuntza pedagogikorako mugimenduek eta antzerakoek indar handia izan dutela eta ekarpen izugarria egin diotela Euskal Herriari, jarduera pedagogikoari dagokionez, hobekuntza asko ekarri dituelako. Eta esan genezake, lan horri esker nahiko aitzindaria izan dela Euskal Herria. Gertatzen dena da, ordea, berrikuntza pedagogiko horretan aitzindari izan den jendea piskanaka jubilatzen ari dela, eta hein batean ikusten dugula belaunaldi berrietan ez dagoela hezkuntzari buruzko hain ikuspegi kritikoa, eta nolazpait despolitizatu egin dela hezkuntza. Gure ustez, baina, izaera politiko hori berreskuratu behar luke eta horretarako esku-hartze konkretuak behar dira. Gainera, sareen arteko elkar ezagutza eta elkarriketa eskasaren arazo ere hor legoke. Testuinguru horretan, eta, bertzeak bertze, hausnarketa horien ondorioz sortu zuen LABek Iruten proiektua, ekintza sindikalerako lerro klasikoaz gain, hezkuntza politikakoa ere irekitzeko. Euskal Herriko ikasketxe, sare, hezitzaile eta esperientzia interesgarri horiek denak harilkatzeko xedez, herri proiektu sendoa

artikulatu eta irun nahian.

Eskoletan eta hezkuntza komunitateetan gauza interesgarri asko ari gara egiten, baina horrek guztiak aterki moduko bat behar du, egiten ari garenari forma emango diona eta zerbait komuna egituratuko duena, kontzientzia horretatik etorriko baita egiazki herri bezala erantzun bat. Gakoa da jendea kontzientziatzea eta antolatzea sinetsita herri gisara badugula beste proiektu edo alternatiba bat. Finlandiarrek oso garbi dute beren hezkuntza-sistema nolakoa den eta nolakoa izan behar den, eta guk ez dakit horren garbi ote dugun. Beno, badakigu legea nolakoa den, baina ez egiazki gure praktika pedagogikoak nolakoak diren. Alegia, Euskal Herrian zer egiten dugu pedagogikoki? Pedagogikoki zuzena zer den badakigu, hau da, Euskal Herrian irakasleok badakigu denak ez duela balio pedagogian, baina gero horren atzean asko dago hausnartzeko eta sakontzeko, sarri gure teoria ideala eta praktika bat ez datozelako.

Amaitzeko, Euskal Herriarentzat zein hezkuntza-eredu diseinatuko zenuke? (Nondik hasi, nola egikaritu, irakasleek zer egin dezakete, eta eskola-komunitateak zer? Administrazioen zain egon gabe).

Nire ustez, diseinatuta dago jada, Hik Hasi jarri digu plataforma, berriki plazaratu duen “Hezkuntza proposamena”-ren bidez. Orain eragileoi eta norbanakooi dagokigu zimentu horien gainean eraikitzen hastea... Noizbait teiltura ailegatuko gara, baina goazen etxea azpitik goiti eraikitzen saiatzera, mantso-mantso, ahal dela era bateko zein besteko bidaidez inguratuta, tximinira ailegatu arte. Hezkuntza eragileen artean sakabanaketa dagoen une batean, Hik Hasi gai izan da zimentu batzuk ezartzeko, oro har, hezkuntza eragile guztiok eta norbanakook partekatzen ditugunak. Hortik aurrera, zer? Nik uste dut besteoi dagokigula azpitik goiti eraikitzea. Esango nuke batzuetan horretan saiatu garea, baina teiltutik hasita. Alderantziz egin behar dugu, hortik etorriko delako etortzekotan alternatiba bat. Bestenaz, beti ibiliko gara txikira jokatzeko.

“Adinartekotasunak bizitza errealarekin zerikusia dauka eta aberasgarria da edozein ikuspuntutatik; bertzeak bertze, berdinen arteko tutorizazioa eta elkarrekintza, norberaren erritmoekiko errespetua, autonomia eta komunikazioa baitakartz berekin”

“Euskal Herriko berrikuntza pedagogikoan aitzindari izan den jendea piskanaka jubilatzen ari da, eta ikusten dugu belaunaldi berrietan ez dagoela hezkuntzari buruzko ikuspegi hain kritikoa, nolazpait despolitizatu egin dela hezkuntza”

ESPERIENTZIAK

MATEMATIKA MANIPULAGARRIA

Leire Arana: “Inguruan pasatzen diren gauzei zuku matematikoa ateratzea gustatzen zait”

Matematika: zergatik da gai iluna, zakarra eta ulergaitza ikasle askorentzat? Zergatik gorroto dute askok? Zergatik bihurtzen dira gris eta zimeltzen dira matematikako ordua iristen denean? Zergatik sufritzen dute hainbeste matematikarekin?

Leire Arana irakasleari galdera horiek etortzen zitzaizkion burura, Fisikako karrera egin ondoren 1998an Batxilergoan eskolak ematen hasi zenean. Ordu-ra arte oso esperientzia positiboa izan zuen matematikarekin: ongi moldatzen zen teknikoki, kontzeptu guztiak erraz ulertzen zituen, eta asko gustatzen zitzaion. Baina zenbait ikasleri kontrakoa gertatzen zitzaie-la jabetu zen. Are gehiago, arazo handi bat ikusten zuen: “DBHn eta Batxilergoan egiaztatu nuen”, dio. “Oinarrizko lau eragiketarik ikasten dituzte LHko 1. mailatik hasita, *ehuneko* kontzeptuarekin eta propor-

tzioarekin dabilta LHko 5. mailatik, eta, Batxilergoan, oraindik ez dute ulertzen ondo zelan maneiatzen diren horiek denak. Benetako egoerak eta buruketak iristen direnean, nolako zailtasunak izaten dituzten!”.

Gero, ama izan zen, eta, hiru semeekin, ikasketen ibilbidea berriro behetik gora egitea egokitzen ari zaio. Hor ere, gauza bera ikusi zuen: “Lehen semea LHko 1. mailako matematikarekin hasi zenean, konturatu nintzen hark paperean ikusten zuen $6+7$ ez zela ezer harentzat, oso abstraktua zela ulertzeko. Eta nik neuzkan eza-gutzak ez ziren inondik inora baliagarriak harentzat; ez zuen ulertzen. Arakatzera eraman ninduen horrek”. Orduan deskubritu zuen *matematikak eskuetara*.

Zer da *matematikak eskuetara*?

“Matematika liburuetatik ateratzea eta beste modu batera maneiatzea da”, labur esanda. “Ez da manipulazteagatik manipulaztea, baizik eta kontzeptuak hobeto ulertzeko erabiltzea; gero iritsiko da paperera pasatzea”.

Lau gako-hitzek deskribatzen dute *Matematikak eskuetara*: esperimentala, manipulagarria, jolasa eta algoritmoak.

Leire Aranak ematen dituen lantegietan, berehala jartzen ditu gurasoak zein irakasleak ezaugarri horiek des-

kubritzen, ariketa baten bitartez: lau paper zati jartzen ditu lurtean, eta hitz bat du idatzita horietako bakoitzak: *gogoko*, *ez gogoko*, *ondo moldatu* eta *eskas moldatu*. Galdera hau egiten die gero: “Nola moldatzen zineten matematikan, eta zenbat gustatzen zitzaizuen? Kokatu zeuen burua paper hauetako batean”. Bakoitza bere lekuan kokatu ondoren, ariketa honen ezaugarriak azaltzen hasten da.

- “Zer egin dugu? Sarrera bikoitze-ko taula bat. Baina, paperean egin orde, geuk egin dugu, geure gorputzarekin, eta geure egoera batekin; zeuen burua definitu behar izan duzue”. Nola-bait esateko, antzerkia egin dute lantegiko partaideek; ariketa esperimental izan da, eta bizi egin dute. Horixe da *matematikak eskuetara* definitzen duen hitzetako bat: edozein trebezia edo gai lantzeko orduan, hasierako hurbilketa norberaren gorputzetik egin beharko litzateke, norberaren esperientziarekin lotuta. “Haurrak askotan jartzen ditugu esanguratsuak ez diren adibideen aurrean; gari zakuak, parkingetako sartu-irtenen kopuruak... Horiek ez dira umeen intereseko gaiak, eta ezin ditugu erabili kontzeptu berriei aurre egiten hasteko. Zergatik ez die- te galdetzen karameluez, kromo



paketez edo marrazki bizidunez? Aprobetxa dezagun une hori, batuketak edo biderketak egiteko!”.

- Ondoren, hainbat modutan kontaktzen hasten dira: guztira zenbat dauden, talde batean beste batean baino zenbat gehiago dauden... Horrela, batuketak, kenketak, konparaketak... egiten hasten dira, baina ez paperean, baizik eta Cusineren erregeletekin, zotzekin... Hau da, eskuekin eta materialak eskuetan erabiliz. Materiala manipulatu hurbilazten zaizkie kontzeptuak haurrei, jakinik uneren batean paperera pasatu beharko dutela. “Argi dago DBH bukatzean 2. mailako ekuazioak paperean ebazten jakin beharko dutela ikasleek, legea horrela den bitartean. Baina hurbildu diezazkiegun bidean sartzen hasi garen kontzeptuak lehenengo esperientziak biziz eta manipulatu. Hori da gakoa”.
- Ariketa hau jolas modura planteatzen du Leire Aranek lantegietan, eta horixe da hirugarren hitza: jolasa. “Nire ustez, jolasa da dagoen gauzarik produktiboa, arrazoi askorengatik”,

dio. “Batez ere, ikasteko une onenak eta ikasketa sakonenak sortzen dituelako. Oso garbi daukat”. Jolasaren aukerak infinitu dira, eta, gainera, infinitu jolas daude. Aranek dio perfektua dela jolasaren testuingurua. Hau da, testuinguru erlaxatua eskaintzen du jolasak; batuketa bat egitean gaizki egiten bada, ez du inporta. Akatsa zuzendu, eta aurrera jarraitzen da jolasten eta kontaktzen, inolako traumarik sortu gabe. Horregatik dio jolasak gelan askoz ere gehiago aktibatu beharko liritekeela.

“Gainera, aipatutako testuinguru hori gidatzen duenak edo bidelagun denak egoera ongi zukutzen baldin badaki, bonba bat da jolasa matematikoki”.

- Laugarren gakoa: algoritmoak. Batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak ikasteko modua errebisatzeko beharra ikusten du Aranek. “Guk egiten ditugun moduan, bururakoarekin, zenbakiak ondo lerrokatuta... oso abstraktuak dira. Badaude beste modu batzuk, eragiketak egiteko. Adibidez, ABN algoritmoak askoz ere modu naturalagoan planteatzen ditu lau algoritmo

“Matematika bizitzeko beste modu bat badagoela aldarrikatu nahi dut”

“Erabili materialak luze, kontzeptuak ondo asimilatu arte, eta, gero, pasatu paperera”

“*Matematikak eskuetara matematika liburuetatik ateratzea eta beste modu batera maneiatzea da*”

“Matematikaren inguruan gelan egiten den jarduna bizipenetan zentratzea, eskuekin manipulatzeko, jolasen bidez lantzea eta algoritmoak goitik behera aldatzea dago *matematikak eskuetara planteamenduaren azpian*”



horiek: bururakorik gabe eta zenbakikuntzan askoz gehiago zukutuz. Andaluzian garatu da 2008tik hona ABN algoritmoa, eta penintsula osoan hedatzen ari da pixkanaka-pixkanaka. Hemen, Euskal Herrian, ez da zabaldu oraindik. “Nik nahiko nuke Euskal Herriko umeek batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak beste modu batera egitea hemendik urte batzuetara. ABN algoritmoarekin, ondo funtzionatzen dute, eta askoz ere aberatsagoa da. Askoz ere ibilbide hobea eta azkarragoa egiten dute ikasleek”.

Edonola ere, ABN algoritmoaren orde gaur egungoa erabiltzen bada, gutxienez aurrena materialekin jardutea aldarrikatzen du Aranak, eta testuinguru errealean: txotxekin, kromoekin, kartekin... “Erabili materialak luze, ondo asimilatu arte, eta, gero, pasatu paperera”.

Laburtuz, matematikaren inguruan gelan egiten den jarduna bizipenetan zentratzea, eskuekin manipulatzeko, jolasen bidez lantzea eta algoritmoak goitik behera aldatzea dago *matematikak eskuetara planteamenduaren azpian*.

Nondik hasi? Lehen 4 pausoak

Matematika ikasleen eskuetan jartzeko, egungo matematikaren irakaskuntza osoa berrikusi behar da,

eta ongi prestatuta egon behar du hezitzaileak. Bide horri ekiteko, lau gako edo pauso garrantzitsu azpimarratu ditu Aranak.

1. Hurrekiko irakaslearen ikuspegia, eta gaiarekiko ezagutza teknikoak: Alde batetik, funtsezkoa da haurren errealitatea ezagutzea eta kontuan hartzea. Izan ere, haurra ez baldin badago ondo, ez da ezertarako egongo gelan. Gaixorik dagoenean ez da ezertarako egoten; bada, gauza bera, beste edozer pasatu bazaio: etxean haserretu delako, irakaslearekin eroso ez dagoelako, kezkaren bat duelako, irakaslearen edo beste zerbaiten beldur delako... Horretarako, irakasle bakoitzak lan pertsonala egin behar du; ongi jakin behar du zer motxila dakarren. “Gure ikastolan, Konfiantzaren Pedagogiak praktika pedagogikorako esparrua eskaini digu, eta Golden Bostek, horretarako estrategiak. Horrek guztiak geure gabeziatan eta indarguneetan murgilarazi gaitu... Asko hausnartu dugu. Barne-mugimendu pertsonala ekarri digu, eta ez dakit ez ote den hori garrantzitsuena”, dio Aranak.

Mugimendu horren ondorioz, hurrekiko irakasleen jokabideak aldatu egiten dira. Haur batek gostatuz ez zaigun

jokabide bat izan badu, erantzuna hauxe izan daiteke: “Horrela jarraitzen baduzu, zuzendarirengana zoaz”; edota “zer gertatzen zaizu, zergatik zaude horrela?”. Norberaren ikuspegia eta erreakzioa daude hor, eta funtsezkoa da hori lantzea. Horrekin batera, irakaslearen prestakuntzari garrantzi handia ematen dio Aranak. Haren iritziz, irakasleak eskuartean duen gaia edozein delarik ere, oso ondo ezagutu behar du teknikoak.

Horregatik, Irakasle Eskoletan jasotzen den prestakuntzari so jartzen da. “Hezkuntzan jarduten duen jendeak oso ona izan behar luke”. Irakaslearen eta bidelagunaren betekizuna ikaragarri garrantzitsua dela dio, eta asko arduratzen eta larritzen du Irakasle Eskoletako ikasleek matematikan zer-nolako gabezia daukaten ikusteak. “Ez dakit gaur egun zer nota eskatzen duten Irakasle Eskolarako sARBIDEAN, baina eskola horretara onenek joan beharko lukete, medikuntzara-eta joaten diren bezala. Zeren etorkizuna dago jokoan! Herrialde baten etorkizuna jokatzeko da, eta ez matematikan soilik, denean baizik”. Noski, horrek berarekin dakar Irakasle Eskoletan ere oso-oso



2. Piramide metodologikoa: baliabide bakoitza ikasleekin zenbat erabili beharko litzatekeen erakusten du hiruki honek. Testuliburuak goian daude, pastelak bezala, noizean behin erabiltzeko. Aranak testuliburuaren ordeztu gidaliburu bat edukitzea amesten du. Oztopo nabarmen bat ikusten dio testuliburuak erabiltzeari: haur bakoitzak berea edukitzea. “Irakasleek ikaragarriko presioa sentitzen dute testuliburu hori etxera beteta eraman dezaten. Eta orduan, presio horren aurrean, fitxak, fitxak eta fitxak, orriak, orriak eta orriak egiten dira. Irakasleek ez dute denborarik izaten apur bat geratu eta gauzak beste modu batean egiten saiatzeko”. Testuliburu gida moduan hartuz gero, aldiz, han planteatzen diren proposamenak gelako haurren ezaugarrietara molda daitezke, liburuaren ildoari jarraituz.
3. Algoritmo egokiagoak erabiltzea: ABN algoritmoak erabiltzea proposatzen du Arizmendi ikastolako irakasleak.
4. Instrukzio itsuak eta bide bakarrik saihestu: bide anitz daude gauzak ikasteko. Batuketak eta kenketak hamaika modutara egin daitezke: erregeletekin, ehuneko taularekin, zuzen errearekin, zotzekin, ABN algoritmoarekin, abakoarekin, taptanarekin... “Baliabideak badaude! Beraz, ezagut ditzagun, ez baitira ezagutu ere egiten, eta erabil ditzagun!”. Beti modu berean egiteak asperdura dakar. Aldiz, aberastu egiten gaitu modu anitzetara egiteak.
Gako horiek aurrera eramateko, honako dekalogoia proposatzen du:
 - 1- Aukerak denei eman, eta bakoitzak behar duenetik jardun.
 - 2- Esperimentaziotik eta bizipenetik abiatu.
 - 3- Gardentasuna bilatu.
 - 4- Ikerketa matematikoak egin.
 - 5- Kontzeptuak hitzetara ekarri.
 - 6- Edukien eta egoeren mailaketa egokia zaindu.
 - 7- Zehaztasuna eta estimazioa landu.
 - 8- Zuzenektatik alderantzizkorako bidea egin.
 - 9- Eredu formalak erabili.
 - 10- Ahal den guztietan gozatuz eta jolastuz jardun.

“Baliabideak badaude!
Beraz, ezagut ditzagun,
ez baitira ezagutu
ere egiten, eta erabil
ditzagun!”

“Testuliburuak goian
daude, pastelak
bezala, noizean
behin erabiltzeko.
Testuliburuaren ordeztu
gidaliburu bat edukitzea
amesten dut”



Matematikak eskuetara etapaz etapa
Orain arte aipatutako guztia jar daiteke praktikan geletan, eta horretan ari dira Aranak lana egiten duen zentroan, Arizmendi ikastolan. Etapaz etapa, zer egin daitekeen azaldu digu, adibideak emanaz eta gauza egingarriak direla erakutsiz.

• Haur Hezkuntza

Matematikari, lau esparruz hitz egin ohi da: logikaz, zenbakikuntzaz, neurriaz eta geometriaz. Laurak aparte aipatu ohi dira, baina elkarri lotuta daude, eta laurak elikatu behar dira. Nola? Materiala eskainiz eta euren gorputzak eskatzen diena egiten utziz.

- Bai matematikaren garapenak, bai edozein gairenak librea izan behar luke Haur Hezkuntzan: materiala jarri aurrean eta inguruan, eta haiei utzi.
- Esploratzailea: haurri eskatzen duenari heltzen, mugitzen, aldatzen... utzi.
- Manipulagarria: eskuekin materialak eta kontzeptuak maneiatu, testulibururik gabe.

• Lehen Hezkuntza

Hasteko, entresaka egin beharko litzateke testuliburuetan: zer landu liburuarekin, eta zer modu manipulagarrian. Eta hurrengo urratsa testulibururik gabe dena manipulagarri egitea eta proiektuen bidez lantzea litzateke. Are gehiago, ikasketa esanguratsua egin nahi bada, une horretan

ikasleen intereseko gai batekin lotuta egon beharko du proiektuak. Esate baterako, futbolarien kromoekin baldin badabilta, horri atera behar zaio zukua. "Iaz, txitak eta arrautzak ateratzeko inkubagailuak jarri zituzten gure ikastolan. Bada, hizkuntza eta matematika lantzeko baliatu genuen egoera". "Niri gustatzen zait pasatzen diren gauzei zuku matematikoa ateratzea".

Horrez gain, garrantzitsua da materiala arakatzea. Material asko eta asko dago, eta arakatu egin behar da. Eta, ondoren, manipulagarri bihurtu daitekeena manipulagarri bihurtu.

Prozesu horretan aldaketa esanguratsu bat dago: haurri begiratzeko eta heltzeko modua. "Hori asko aldatu da. LHko lehen mailara datorren haurri beste modu batera begiratzen zaio orain, eta funtsezkoa izan da hori".

• DBH

Une honetan, EKIn dabilta DBHn. Gauza on asko ikusten dizkio Aranak, EKIn egoera errealei lotuta egiten baita bidaia, edukietan zehar. Baina, hor ere, kontzeptuak ikasleengana hurbiltzeko moduetan, aldaketak egiteko aukera ikusi du. "Nik saiakera bat egin nuen iaz, materialaren bidez haren EKIn eginez, eta beste herena modu manipulagarrian", azaldu digu. "EKIn helburuak ikusi nituen, zer jarduera mota proposatzen ziren papererako, eta nik egokitu egin nituen

laborategian egiteko, irudiekin-eta lantzeko, 3 dimentsioko geometria erabiltzeko... Adibidez, paperean paralelogramo bat jartzen badizute neurtzeko, zergatik ez neurtu lurrean, edo irten kalera paralelogramo bat aurkitu eta haren azalera neurtzera?"

• Batxilergoa

Selektibitateak duen pisua kontuan hartuta, 2. maila ukiezin bihurtzen da. Oso ikasturte akademizista da, hautapropa hori dela-eta, eta ez dute aldaketarik egin maila horretan.

Lehenengo mailan bai, zenbait arlo hartzen dituzten proiektuak landu dituzte, eta oso gustura daude izandako emaitzarekin. "Irakasleok lantaldetan banatu gara, eta sei proiektu sortu ditugu. Helburua da horiek garatu ahala ikasleak edukiak bereganatzen joatea. Eta, era berean, gutxiago edo gehiago gidatuta, ikasleek eurek beren ikerketak eta prozesuak garatzea. Edukiak lantzean ere, ikasleak testuinguru eta eginkizun errealetan jartzea, alegia".

Biologiarekin lotuta, proiektu batean, esate baterako, kirol enpresa bat sortu eta entrenamendu pertsonalizatuak antolatu behar zituzten (adar zientifikoko eta giza zientzietako ikasleak ziren): benetako bulegoak muntatu zituzten, etxeko kafe-termoarekin joaten ziren... Kimika, biokimika, heziketa fisikoa, hizkuntza, azterketa estatistikoak... landu zituzten.

Horrela planteatuta, askoz ere erakargarriagoa da gaia. "Egia esan behar badut, ni oso eszeptiko hurbildu nintzen proiektuetara. Izan ere, oso abstraktuak iruditzen zaizkit Batxilergoko edukietako asko eta asko, eta ez nekien nola ekarri gure bizitza errealean", dio Aranak. "Eta egia da batzuk oso zailak direla, baina beste batzuk molda daitezke". Horregatik, molda daitezkeen horiei heldu diete, eta horiek garatzen ari dira. "Onena izan zen ikasleek oso balorazio ona egin zutela. Horrek, nola ez, bultzada handia eman zigun irakasleoi".

Helbide interesgarriak

- www.matematikakeskuetara.eus
- www.aprendiendomatematicas.com
- www.actiludis.com

**IKASLEEN, FAMILIEN,
HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN...
GIZARTE GUZTIAREN KONPROMISOAREKIN**



BAT!

BULLYING-AREN AURKAKO TALDEA
UN EQUIPO CONTRA EL BULLYING

**MOZORROA
KENDUKO DIOGU
BULLYING ARI**

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKARPENAK

KIROLAREN ONURAK BURU-OSASUNEAN

Gogo-aldartea, bizi-kalitatea eta kognizioa hobetuz

Ikerketa askok erakutsi dutenez, ariketa fisikoak eragin positiboa dauka funtzio kognitiboetan eta egoera emozionalean. Depresioarekin, antsietatearekin eta horrelako gaitzekin lotutako sintometan gertatzen da hobekuntza batez ere arretan eta pentsamenduan eta horrelako esparru kognitiboetan.

Ariketa aerobikoek laneko estresa arindu dezakete, yogarekin, meditazioarekin eta horrelako ariketekin batera landuta, eta frogatuta dago efektu horrek eragin positiboa izaten jarraitzen duela ariketa utzi eta handik sei hilabetera ere.

Depresioak eragin negatiboa izan dezake osasunean, estresa eragin baitezake, eta eragin negatiboa izan dezake, halaber, immunitate-sisteman eta emozioetan.

Horregatik, ariketa aerobikoa depresioaren sintomak murriztearekin lotuta dago, eta insomnioari, hipersomniari, nekeari, energiaren galerari eta pentsamendu negatiboari aurre

**Guillermo Cano,
Naiara Ozamiz
eta Sonia Ruiz de
Azua**

EHU. Medikuntza
eta Erizaintza
Fakultatea.
Neurozientzietako
departamentua.
Psikiatriako saila.

egiteko balio du. Beraz, sintoma horiek arintzeko tratamendu ez-farmakologiko eraginkorra da kirola.

Gainera, ariketa fisikoa egiten duten pertsonak sedentarioek baino bizi-kalitate hobea hautematen dute. Pertzepzio hori harreman sozialetan eta funtzionamendu psikologikoan nabarmentzen da batik bat.

Ariketa fisikoak garunaren plastikotasuna areagotzen du. Batez ere hipokanpoan gertatzen da hori, ikaskuntzaren eta memoria-prozesuekin lotutako garunaren aldean.

Hainbat ikerketaren arabera, ariketa aerobikoek anaerobikoek baino eragin positiboagoak dituzte errendimendu akademikoan eta adimenean.

Bestalde, ikerketek argi erakutsi dutenez, hobekuntza kognitiboak izaten dituzte alzheimerre, parkinsona edo horrelako gaixotasunen bat dutenek, ariketa aerobikoaren ondorioz. Alzheimerre duten pazienteek oroimena hobetu dezakete ariketa aerobikoa egitean, eta hipokanpoaren narriadura gutxiagotu dezakete. Gainera, fisioterapiak funtzionamendu kognitiboa eta informazioaren prozesamendua hobetzea eragin dezake parkinsona duten gaixoengan.

Patologia fisikoei dagokienez, ikerketek erakutsi dute ariketa fisikoa oso baliagarria dela osteoarthritis, lunbalgia edo zerbikalgia duten pazienteengan. Kasu horietan, ariketa fisikoak funtzionamendu psikologikoa eta bizi-kalitatearen pertzepzioa hobetzen ditu.

Euskal Herriko Unibertsitatean egindako ikerketa

Gaur egun, ez dakigu zer kirol mota den onena hobekuntza psikologiko eta kognitiboak gertatzeko, ez eta zenbat denboran egin behar den edo zer maiztasunekin ere. Horregatik, hobetu egin behar dira ariketa fisikoen programa horiek. Euskal Herriko Unibertsitatean, ikerketa bat egin genuen lantalde batek, aztertzeko zer ariketa fisikok hobetu ditzakeen egoera afektiboa, bizi-kalitatea eta kognizioa. Horretarako, askotariko gaixotasun fisikoak zituzten pertsonekin egin genuen ikerketa.

Lagina

Ikerketan, 27 urtetik 58ra bitarteko 40 pertsonak parte hartu zuten. Gaixotasun fisikoren bat zeukaten parte-hartzaile guztiek: aurreko lotailu gurutzatuko plastia, omalgia, gonalgia, lunbalgia, zerbikalgia, ostreoartritis eta sorbaldaren haustura. Aurrez, tratamendu farmakologikoarekin eta fisioterapiarekin ezin izan zieten aurre egin gaixotasun fisiko horiei aurrez.

Metodologia

Parte-hartzaile guztiek galdera batzuei erantzun zieten, gurekin esku hartzen hasi baino lehen. Galdera horiek egoera emozionalari, bizi-kalitatearen pertzepzioari eta gaitasun kognitiboari buruzkoak izan ziren. 10 astera, berriro ebaluatu genituen pazienteak.

Tresna hauek erabili genituen:

- STAI testaren bitartez, egoera emozionala neurtu zen.
- BECK testaren bitartez, depresioa neurtu zen.
- EUROqOL-5D (EQ-5D) tresnaren bitartez, bizi-kalitatea neurtu zen.
- Nagusientzako Wechsler (WAIS-IV) eskalako hainbat tresna ere erabili ziren, abiadura bisomotorra, prozesatze-abiadura, arreta eta epe laburreko oroimena neurtzeko. Digituen proba egin zen, gainera, entzumenezko oroimena eta lan-oroimena neurtzeko.



Esku-hartzea

Parte-hartzaileek ariketa aerobiko neurritzkoa egin zuten berrogeita bost minututan zehar, astean hiru aldiz. Nerruzko ariketa fisiko hori pertsonaren gaitasun fisikoaren arabera izan zen. Ariketa fisikoa 30 minutuan bizikleta eliptikoan eta 15 minutuan zintan korrika egitean zetzan. Bost minutuko etenaldiak egiten zituzten 15 minutuan behin.

Emaitzak

Proba estatistikoek demostratu zuten pazienteek hobera egiten zutela proba kognitibo guztietan. Oro har, parte-hartzaile guztiek hobera egin zuten proba afektiboetan eta bizi-kalitatean, gurekin esku hartu eta gero.

Antsietatea neurtzen duen STAI proban, batezbestekoa 6 puntu jaitsi zen. Depresioa neurtzen duen BDI proban, 2 puntuko jaitsiera izan zen. Bizi-kalitateari dagokionez, pazienteek bizi-kalitatearen pertzepzioa hobetu zuten: 8 puntu egin zuen gora batezbestekoak.

Proba kognitiboek erakutsi zuten, hobekuntza esanguratsuak egin ziren hitz-etorrian eta oroimenean.

Ondorioak

Ariketa fisikoa egin ondoren prozesu kognitiboa, afektiboa eta bizi-kalitatearen pertzepzioa nola hobetu ziren aztertzea zuen helburu ikerketak. Aurreko ikerketekin konparatuta, bazen berrikuntza bat: ariketa fisiko jakin bat denbora jakin batean definitu nahi izan zen, hobekuntza hauek azaltze-

ko. Gure ikerketak argi erakutsi zuen ariketa aerobiko horiek hobekuntzak ekarri zituztela hainbat eremutan, batez ere antsietatearekin, depresioarekin eta tankerako gaitzekin lotutako sintometan.

Bizi-kalitateari dagokionez, argi ikusi zen emaitzetan pazienteek hobera egin dutela bizi-kalitatearen pertzepzioan, 10 aste pasatu ondoren.

Gainera, ikerketa honen bitartez, kognizioa hobetzen zen ikusi nahi izan zuten, batez ere oroimenari, arretari, prozesatze-abiadurari eta hitz-etorriari erreparatuta. Hitz-jarioari buruzko probak eta zenbakiek argi erakutsi zuten parte-hartzaileek hobera egin zutela arretan, oroimenean, prozesamenduan, gaitasun bisomotorrean eta distrakzioarako erresistentzian. Parametro horiek beharrezkoak dira egunerokotasunerako, eta beharrezkoa da horiek egoki erabiltzea, autonomiarako eta lan-jarduerarako. Beraz, pazienteek 10 astetan kirola egin ondoren, hobera egin zuten aztertutako parametro guztietan.

Ariketa aerobikoaren ondorio kognitiboak oso garrantzitsuak izan daitezke, oroimenaren errendimendua hobetzeko eta hipokanpoaren narriadura gutxiagotzeko, eta alzheimerra eta horrelako gaixotasun degeneratiboak buruzko ikerketak erraztu ditzakete. Gainera, ikerketa horren arabera, ariketa fisikoa onuragarria izan daiteke, baita osasuntsu dauden pertsonentzat eta gaitasun kognitiboak hobetu nahi dituztenentzat ere.

GALDEIDAZU

NOLA ERABIL GENITZAKE ‘TRIBUAREN BERBAK’ SAIOAN OINARRITUTAKO SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK GELAN?

Tribuaren *berbak* saioa egiten ari ginela eta amaitutakoan ere, ikastetxe, euskalategi eta baita hainbat unibertsitatetako irakasleek ere jakinarazi ziguten saioa klaseetan erabiltzen zutela euskararen gaia jorratzeko. Hori ikusirik, urrats bat gehiago eman genuen eta materiala, irakaskuntzan erabiltzeko moduan egokitu behar genuela erabaki genuen.

Halaxe sortu ziren *Tribuaren berbak* saioan oinarritutako *Hizkuntzen munduan eta euskara deskubrituz* sekuentzia didaktikoak, ondoko helbidean kontsulta daitezkeenak: <http://www.eimakatalogoa.eus/20962/tribuaren-berbak/index.html>. Bestalde, sekuentzia didaktikoak kaleratu genituenetik hainbat aurkezpen egin ditugu beraien erabileraren inguruan. “Tribuaren Berbak sekuentzia didaktikoak gelan erabiltzeko jarraibideak” izeneko ikastaroa eman genuen urrian UEUK antolatuta, eta bigarren saio bat ere egingo dugu hurrengo hilabeteetan.

Sekuentzia didaktiko horien inguruko oinarri metodologikoak esplikatu aurretik, ordea, sekuentzien sorreraren testuingurua nolakoa izan zen azalduko dut.

Ideiaaren jatorria

Hasteko esan dezadan, *Tribuaren berbak* euskarari eta hizkuntzei buruzko



KIKE AMONARRIZ

Soziolinguista



ETBren beste programa batzuen segidako katebegi bat gehiago izan dela. Aurretik izan ditugu *Hitzaro / Lengua Viva*, *Bai horixe!*, edota *Kerman mintzalagun bila*. Eta ondoren, neronek parte hartu dudana *Balinda*, *Mihiluze*, *Errazu* eta *Tribuaren berbak*.

Saioaren disenuari ekin genionean bi kezka/helburu generabiltzan buruan:

1. Nola erabili telebista gure mezu soziolinguistikoak zabaltzeko?
2. Nola lortu eragin hori modu entretenigarri eta telebistagarri batean?

Izan ere, *Mihiluze* amaitu eta jendeak galdetzen zidanean zertan nenbilen, “euskarari buruzko programa bat ari naiz prestatzen” erantzuten nien, eta normalean jendearen erreakzioa honako hau izaten zen: bizkarrean eskuarekin zapladatxo bat eman eta “ze interesgarria” labur batez erantzutea, benetan pentsatu zutena “A ze txapa!” zenean!

Baina lehen saioa eskaini orduko lehen zorion agurrak eta komentarioak hasi zitzaizkigun iristen eta denak bat zetozen puntu berean: saio dibertigarria zela eta hizkuntzaren inguruko diskurtso baikorra zuela. 7 atal emititu eta *Argia Saria* eman zigutenean ere ideia horiek errepikatu zituzten. Eta horrek asko poztu gintuen bezala, kezka ere sortu zigun: *Tribuaren*

berbak saioa dela eta, tonu baikorra horrenbeste nabarmentzen bada, nolakoak dira euskararen inguruan darabiltzagun mezuak eta tonuak? Euskararen zein irudi ari gara transmititzen?

Bestalde, hasieratik garbi ikusi genuen gure testuinguru endogamikoak sorturiko hizkuntza kriptiko eta neurri batean autokonplazientea ekidin behar genuela.

Oinarrian dagoen filosofia

Programaren formatua osatzen ari ginela, honako oinarri hauek erabili genituen:

- Euskararen inguruko DIBULGAZIOA egin nahi izan dugu eta horretarako ezinbestekoa da saioa ENTRETENIGARRIA izatea:

- Euskarak duen "txapa" fama gainditu nahi izan dugu eta negarraren eta tristuraren ordeztan, euskararen alde lanean ari den jendearen ilusioa transmititu eta euskalduna izateak, ikasteak edo euskaraz egin eta sortzeak hitzunei sortarazi dizkien sentimendu positiboak nabarmendu.
- Emozioa, harridura, jakinmina piztu eta programan jolastu eta ondo pasa.
- Ohiko euskaltzaleengandik haratago iritsi nahi izan dugu. Are gehiago, saioak, batez ere, euskalgintzatik kanpoko jendeari zuzendutakoak izan dira.

- Lengoaia telebisioa asko zaindu da:

- Kaleko programa izan da. Airean eman nahi izan diegu elkarrizketei eta erreportajei. Gure buruari debekatu egin genion elkarrizketak liburutegi baten aurrean egitea (salbuespenen bat egin bagenuen ere). "Aditu" kutsua kendu eta "aritu" kutsua erantsi nahi izan genion.
- Denek ulertzeko moduko hitzak eta kontzeptuak erabili eta teknizismoak ekidin ditugu. Amak, alabak eta lehengusu elektrizistak ulertzeko moduan hitz egin behar zutela esaten genien elkarrizketatuei.
- Elkarrizketei ekin aurretik gonbidatu guztiei errepikatzen genizkien gure 3 goiburua: argi,

mamitsu eta labur.

- Erritmoa, hasierako irudiak, teknikarekin jolasak... asko landu dira.

- Tonua: alaia eta baikorra. Ilusioa eta pasioa transmititu nahi izan dugu.

- Baina errealitatea den bezala erakutsiz.
- Hori bai, errealitateari aurre egiteko jarrera baikorrek. "Mekaguen! Aurrera egin behar dugu" ideia transmititu nahi izan dugu atal bakoitzean, sinetsita bainago partidak eta gerrak baikorrek irabazten dituztela.

- Zaindu ditugun balioen artean honako hauek azpimarratuko nituzke:

- Lurraldetasuna (+ Euskal Herri-*kanpoko* euskaldunak). Lehen programan, Garabide elkartearen bidez, gure errealitate soziolinguistikoa ezagutzera etorritako hainbat hizkuntza indigenatako hitzak jaso genituen beraien hizkuntzatan azpizatuta. Gerora, programan entzun dira okzitaniera, katalana, gaztelania, frantseza, italiara eta ingelesa, besteak beste.
- Adina eta generoa.
- Eta adituak eta arituak nahastu ditugu. Edukiak eta bizipenak.

Telebistatik sekuentzietara

Sekuentziak osatzeko lana Iñaki Zapirainen eta bion artean burutu dugu. Lankide izan ginen *Mihiluzen*, eta orain Orereta ikastolako irakaslea da bera; euskaltzalea, teknologia berrietan trebea, eta euskara eta pedagogiarekiko pertsona kezkatua eta interesatua. Lan honetarako perfektua zela pentsatu nuen... eta hala gertatu zen.

Baina ikuspegi metodologikoan, lagunduko gintuen norbait behar genuen. Tolosan ahozketasuna lantzeko bideratu zen proiektu pilotuan ezagutu nuen Josune Zabalarari deitu genion: ahozketasunean aditua bera, eta atal batean elkarrizketatua genuena. Metodologia aldetik berak markatu du bidea, eta berak adierazi zigun hasieratik, gaiak lantzeaz gain, sekuentzia bakoitzak bere helburu komunikatiboa behar zuela. Jarraian irakurriko duzun guztia Zapirain, Zabala eta hiruroen artean prestatutakoa da.

Euskarak duen "txapa" fama gainditu nahi izan dugu eta negarraren eta tristuraren ordeztan, euskararen alde lanean ari den jendearen ilusioa transmititu eta euskalduna izateak, ikasteak edo euskaraz egin eta sortzeak hitzunei sortarazi dizkien sentimendu positiboak nabarmendu nahi izan ditugu.

Ohiko euskaltzaleengandik haratago iritsi nahi izan dugu. Are gehiago, saioak, batez ere, euskalgintzatik kanpoko jendeari zuzendutakoak izan dira.

Zer dira sekuentzia didaktikoak?

Tribuaren Berbak saioa oinarri hartuta, euskarari eta Euskal Herriko eleaniztasunari buruzko oinarriko ezagutza soziolinguistikoa lantzeko material didaktikoa da. Material hau, une honetan, edonorentzat eskuragarri dago EIMA katalogoan.

Hizkuntzen mundua eta euskara deskubrituz materiala, 10 sekuentzia didaktikok osatzen dute. Sekuentziak euskara ikasgaiaren material osagarri gisa erabil daitezke eta DBHra begira prestatu badira ere, behar diren egokitzapenak eginda, goimailetan, unibertsitateetan, euskaltegietan, edo euskalduntze programak garatzen ari diren edozein sektore edo erakundetan erabil daitezke; eta zenbait irakaslek LHn ere erabili dituzte ikasle bakoitzaren adin eta mailara egokituta.

Material honek ikasleen artean soziolinguistika arloaren inguruko trebeziak garatzea bultzatu nahi du: testuinguruaren azterketa, datu bilketa eta antolaketa, informazio truketzea,

GALDEIDAZU: 'TRIBUAREN BERBAK' SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK GELAN



emaitzen deskribapena, hausnarketa, eztabaida eta gisakoak garatzea. Ez du ikuspegi jakin bat eman nahi, baizik eta honako aspektuetan arreta jarri:

- ikasleak inguratzen dituen errealitate soziolinguistikoa interpretatzen laguntzea,
- ikuspegi pertsonala osatzea,
- eta euskararen eta eleaniztasunaren aldeko jarreretara “motu propio” iritsi daitezten eta jarrera praktikoak har ditzaten lortzea.

Sekuentzia didaktiko bat ekoizpen erreal batean amaitzen den jarduera multzo bat da. Proposatzen zaien erronka gauzatzeko bidean, ikasleek curriculumak proposatzen dituen gaitasunak garatuko dituzte, horretarako planteatzen zaizkien gaiak eta jarduerak gauzatu.

Ekoiztu beharreko helburu horiek anitzak izango dira, gaitasun desberdinak lantze aldera (ahoz nahiz idatziz; bitarteko eta euskarri desberdinak erabili beharko dituzte helburu komunikatibo horiek lortzeko).

Sekuentzia didaktikoek ikaste-prozesua esanguratsua izatea bermatu behar dute. Hau da, lantzen diren edukiak lotura izan behar dute lortu behar duten helburu komunikatiboarekin. Bi ildoak etengabe lotuta doaz, gure kasuan, soziolinguistika edukiak eta helburu komunikatiboa lortzeko gaitasunak.

Ikasketa-prozesu hori esanguratsua izateko, ezinbesteko bi ardatz daude: lehena, materiala esanguratsua izatea eta bigarrena, irakasleak prozesuarekiko jarrera positiboa izatea.

Azken finean, ikasleak ekintzara bideratzen ditugu. Lantzen diren gaien inguruan hasunartu eta eztabaidatu beharko dute, ondoren, planteatu zaien erronka lortzeko. Eta lanketa hori guztia ikasketa kooperatiboa erabiliz egingo dute.

Metodologia kooperatiboa

Kooperazioan lan egiteak, batera lan egitea esan nahi du, komunean duten helburua lortzearen. Egoera kooperatibo batean, norberak emaitza onak lortu nahi ditu berarentzat eta gainerrako taldekideentzat. Honenbestez, lan eta esfortzu indibidualaz gain, talde lana funtsezkoa da, gizabanakoak besteekin elkarri eragiten ikasten baitu.

Elkarlan honek 4 ardatz hauek izan behar ditu:

- Helburu komuna izatea.
- Elkarmenpekotasun positiboa izatea, hau da, azken emaitzak guztion ekarpena eta lana behar izatea.
- Bakarkako erantzukizuna ezinbestekoa izatea helburua lortzeko eta edukiak eta ezagutzak garatzeko.
- Aurrez aurreko komunika-

zioa izatea, entzumen aktiboa lantzea, gure arteko gatazkak bideratzen ikastea...

Sekuentzien lanketa-faseak

Hau guztia kontuan harturik, 6 fase desberdinetan banatu ditugu gure sekuentziak:

- 1. fasea: egoera komunikatiboaren aurkezpena

Sekuentzia didaktikoaren abiapuntuan, ikasleei aurkeztu egiten zaie zer egitera eta zertan ikastera goazen hurrengo saioetan. Azken helburu komunikatiboa ere aurkezten zaie, eta baita helburu hori lortzeko dinamikak zein izango diren ere.

2. fasea: testuinguratzea

Atal honetan ikasleek dituzten aurrezagutzak aktibatuko dituzte eta duten informazioa elkarrekin partekatuko dute egitura kooperatiboak erabiliz. (1-2-4, Arkatzak erdira edo Orri birakaria). Gai bakoitza lantzen hasi aurretik, irakasleak oinarriko azalpena emango du eta galdera sorta bat planteatuko die ikasleei bi aspektu nagusi hauen inguruan eta ikasleek erantzun egin beharko dituzte:

- Zer dakite ikasleek landu nahi den curriculumaren atalari edo gaiari buruz?
- Zer dakite bukaerako proiektua ekoizteko behar diren ezagutzei, bitartekoei nahiz komunikazio/hizkuntza mailari buruz?

Dakitenaren kontzientzia hartu eta ikasteko beharrak identifikatu ahal izango dituzte.

3. fasea: garapen fasea

Behin gaia planteatuta, gero eta lanketa kooperatiboagoen bidez, ikasleek gaiari dagozkion galderak erantzun ahal izateko informazioa bilduko dute. Informazio horren zati garrantzitsuenetarikoa bat *Tribuaren Berbak* saioko bideoak izango dira.

Horrez gain, azken helburu komunikatiboari erantzuteko behar dituzten trebeztan sakonduko dute ikasleek.

Bidaia kooperatibo honetan irakaslea laguntzaile eta aholkulari izango dute.

4. fasea: gauzatze fasea

Fase hau ekintza fasea izango da. Orain arte bildutako informazio guztian oinarrituta, azken helburuari erantzuteko ekintzak egingo dira: bildutako informazioa antolatu, tes-

tuak prestatu... eta hau guztia modu kooperatiboan egingo dute.

5. fasea: helburua ekoiztea

Ikasleek, sekuentzia bakoitzaren amaieran, helburu zuten materiala ekoiztuko dute.

6. fasea: ebaluaketa

Fase bakoitzaren amaieran, edo irakasleak egokiago ikusten badu sekuentziaren amaieran, ikasle bakoitzak zertan ikasi duen eta talde gisa zer ikasi duten zehaztu beharko du, 4 esparru aintzat harturik:

- Landu duten gaiaren ezagutzari eta ulermenari dagokionez.
- Komunikazio mailan izan dituzten beharrei eta lortu duten gaitasunari dagokionez.
- Behar ziren bitartekoak erabiltzeko lortu duten gaitasunari dagokionez.
- Praktika linguistikoetan izandako garapenari dagokionez.

Materiala nola erabili

Dagoeneko azaldu dugu material hau sortzearen jatorria zein izan den, eta baita zein metodologia erabili dugun ere. Jarraian, webgunea nola antolatu dugun eta nola erabili litekeen azalduko dugu. Webgunearen helburua da bertan sartzeko den edonork, inoren laguntzarik gabe, materiala nola erabili behar den argi izatea. Horretarako, hasierako orrian 3 atal (informazio gune) jarri ditugu:

- Nola erabili material hau?
- Ezagutu sekuentzia didaktikoak.
- Proiektuaren nondik norakoak.

Atzekoz aurrera hasiko gara atal hauek aztertzen.

a) Proiektuaren nondik norakoak:

- Hasteko, material honek dituen HELBURUAK azaltzen dira bertan (Heziberri dekretua aintzat hartuz jarri ditugunak). Sekuentzia bakoitzak helburu hauetako batzuei erantzuten die. Irakaslearen gidan zehaztuta dator sekuentzia bakoitzak zein helburu dituen.
- *Tribuaren berbak* MATERIAL PEDAGOGIKO GISA puntuan azaltzen da, orain arte azaldu duguna: zer dela eta sortu dugun materiala, zein oinarri dituen...
- Sekuentzietan landuko diren OI-

NARRIZKO GAITASUNAK ere aipatzen dira (hauek ere legeak markatzen dituen kompetentziak kontuan hartuz), eta kasu honetan ere, irakaslearen gidan dator sekuentzia bakoitzak zein kompetentziari erantzuten dion.

- METODOLOGIAren inguruko argibideak ere agertzen dira: Sekuentzia didaktikoak + teknika kooperatiboak.
- Materiala erabiltzeko behar diren BALIABIDEEN berri ere ematen da. Ikasle bakoitzak bere ordenagailu eramangarriarekin lan egitea proposatzen dugu, modu digitalean.
- Azkenik, lanaren egileak, telebista saioko lan taldea eta bibliografia agertzen dira.

b) Ezagutu sekuentzia didaktikoak

Atal honetan 10 sekuentzien AUR-KIBIDE moduko bat aurkituko duzue. Izenburuaz gain, sekuentzia bakoitzean landuko den gaia eta egin beharreko erronka zehazten dira.

Hauek dira:

- Euskararen tamaina
- Zergatik ez dugu egiten?
- Euskal Babel
- Batua eta euskalkiak
- Jolas dezagun euskararekin
- XXI. mendeko euskara
- Jendaurrean
- Eskolaz kanpo, aisian aise
- Garunetik teknologiarara, zientzia bidelagun
- Eta guk zer?

c) Nola erabili material hau?

- Atal honetan agertzen dira materiala erabiltzeko argibide praktikoa. Bertan azaltzen da webgunea nola dagoen antolatuta eta atal bakoitzean zer aurkituko dugun.
- Webguneak, goiko “banerrear” ageri diren 3 atal nagusi ditu:
 1. Sekuentziak
 2. Lan koadernoak
 3. Gida didaktikoak
- **Sekuentziak** atalean, sekuentzia bakoitzean egin beharreko jarduerak agertzen dira. Behin bat aukeratuta, jardueretara joko genuke, eta jarduera bat bukatu ahala, hurrengora pasako

‘Hizkuntzen mundua eta euskara deskubrituz’ materiala, 10 sekuentzia didaktikok osatzen dute. Sekuentziak euskara ikasgaiaren material osagarri gisa erabili daitezke eta DBHra begira prestatu badira ere, behar diren egokitzapenak eginda, goi mailatan, unibertsitateetan, euskaltegietan, edo euskalduntze programak garatzen ari diren edozein sektore edo erakundetan erabili daitezke; eta zenbait irakaslek LHn ere erabili dituzte ikasle bakoitzaren adin eta mailara egokituta.

ginateke. Horrela, azken erronka gauzatu arte. Bestalde, zenbait kasutan, jarduera horiek garatzeko ikasleek **Lan koaderno** erabili beharko dute. Lan koaderno hauek sarean zintzilikatu ditugu Google Drive aplikazioa erabiliz. Honenbestez, ikasleek landu behar duten sekuentziari dagokion Lan koaderno deskargatu beharko lukete. Hainbat jardueratan planteatzen zaizkien galderak, taulak... bertan betetzeko. Jarduera horiek **LK ikurra** dute, lan koadernoan egin beharreko jarduera dela adierazteko. Horretaz gain, “**Txuletario**” deitu diogun kontrol zerrenda bat sortu dugu, sekuentzian zehar ikasten ari diren guztia bertan bildu dezaten, eta hau ere lan koadernoan txertatu dugu. Azken finean, hau izango da ebaluaziorako erabili dezaketen beste tresna bat.

'Sekuentziak' atalean sekuentzia bakoitzean egin beharreko jarduerak agertzen dira. Behin bat aukeratuta, jardueretara joko genuke, eta jarduera bat bukatu ahala, hurrengora pasako ginateke. Horrela, azken erronka gauzatu arte. Bestalde, zenbait kasutan, jarduera horiek garatzeko ikasleek 'Lan koadernoa' erabili beharko dute. Lan koaderno horiek sarean zintzilikatu ditugu Google Drive aplikazioa erabiliz. Honenbestez, ikasleek landu behar duten sekuentziari dagokion Lan koadernoa deskargatu beharko lukete. Hainbat jardueratan planteatzen zaizkien galderak, taulak... bertan betetzeko.

Azkenik, **gida didaktikoen** atala daukagu, irakasleei zuzendua. Gida didaktikoan aurki daiteke sekuentzia gauzatzeko beharrezko informazio guztia: gaia, maila, saio kopurua, landuko diren konpetenziak, helburuak... Eta baita, jarduera bakoitzaren inguruko azalpenak ere. Teknika kooperatiboak proposatzen direnean, horien inguruko informazioa ere ematen da.

- Praktikara eramanez, hauexek lirateke Webgunean sartzen den edonork eman beharreko urratsak:
 1. Landu nahi den sekuentzia aukeratu.
 2. Sekuentzia aukeratu ondo-

ren, dagokion gida didaktikoa deskargatu.

3. Ondoren, ikasleei esango zaie zein sekuentzia landuko duten eta webgunean sartu beharko dute sekuentziari dagokion lan koadernoa deskargatzeko.
 4. Lan koadernoa deskargatu ondoren, sekuentzia lantzen hasteko moduan dira.
- Webguneko azken bi atalak:
 1. NAHIERAN: bertan klik eginez gero EITBko webguneko *Nahieran* atalean sartuko gara, *Tribuaren berbak* saioko atalak osorik ikusi ahal izateko.
 2. WEBGUNEAN: hemendik *Tribuaren berbak*-eko *eitb.eus* atarian sartuko gara.
 3. Aipatzekoa da *eitb.eus*-eko webgunean, material pedagogikoaren webguneko lotura ere agertzen dela eta grabatu ziren **60 telebista saioen laburpenekin osatutako dokumentua** ere deskargatzeko moduan dagoela.

Gaiak eta garaiak

Era guztietako gaiak lantzen saiatu gara, askoren harridurarako. Genuen material guztitik entresaka egin behar izan dugu, eta gure ustez, irakaskuntzara begira egokienak ziren 10 gaiak aukeratu ditugu "*Hizkuntzen mundua eta euskara deskubrituz*" sekuentziatarako:

- Batzuetan programa bakarrean oinarritu gara.
 - Beste batzuetan, programa bat baino gehiagoren zatiak erabili ditugu.
- Programan bezala, sekuentzietan ere, era desberdinetako atalak erabili ditugu:
- Gaira hurbiltzeko sarrerak (programa guztien hasieratan ustekaberen bat zegoen; hurbiltzeko planteamendua, irudiak, ideiak edo ukitu umoretsua).
 - Ideiak aurkezteko "azalpen bisualak" landu ditugu: erabilera-aren podiuma, hondartzako mapa, hizkera mota desberdinak koktel moduen bidez...
 - Elkarriketak adituekin.

- Kale-inkestak eta jolasak.
- Berriemaileak: EHko 3 egoeren lekuko programero, lehen denboraldian.
- Gai baten inguruko "pilulak": mikrogai bat, bitxikeriak, datuak, etab...

Hizkuntzak askorako ematen du:

- Ikuspegi teknikoaz gain, bizipen, esperientzia eta emozioei leku handia eman diegu.
- Kaletik oso gertu ibiltzen saiatu gara; eguneroko eta benetako errealitateak.
- Pista asko daude irakaskuntzan eta hizkuntza politika-plangintzetan ari zaretenentzat. Sekuentzietan erabilitako atalez gain, beste hainat gai jorratu genituen 60 ataletan.

Programa eta sekuentziak garai egokian etorri dira gainera:

- Aldaketa eta hausnarketa garaia dugu hau. Eta horren adibiderik gertukoena 2018an abiatuko den Euskaraldia ekimena izan liteke.
 - Hizkuntzaren gaiak zentraltasuna hartu behar du, bai euskal agenda politikoan eta baita gizarte-eragileen artean, eta irakaskuntzak ere landu behar du ikuspegi hori.
 - Belaunaldi aldaketa dugu euskalgintzan eta hiztunei dagokienez hurrengo belaunaldiaren norabidea orain ari gara jokatzen:
 1. D eredutik masiboki ateratzen ari den lehen belaunaldiaren hizkuntza praktikek gure etorkizuna baldintzatuko dute.
 2. Lan munduan zein hizkuntzatan integratuko diren eta nola egingo duten familia osatu berrietan.
 3. Egoera eta erronka berriei aurre egin ahal izateko ahaldu behar ditugu.
 - Ditugun azken datu soziolinguistikoen makalaldia edo egonkortzea adierazten dute hizkuntzaren erabilerrari dagokionez. Hiztunak (ber)aktibatu beharra ezinbestekoa da aurrera egitekotan.
 - Inertziak astintzeko garaia heldu zaigu. Erronka berriak planteatu behar ditugu.
- Ea aipatutako helburu horiek lortzeko sekuentzia hauek lagungarri zaizkizuen.

ARGITALPENAK



ARTEEN HISTORIA 3. ZIKLOAN

Unai Zubeldia

IKAS

Historiaurreko, Antzinateko eta Erdi Aroko artea aztertzeko hiru euskarriko bilduma eman du argitara Ikas pedagogia zerbitzuak: irakaslearen liburua, ikaslearen irudi bilduma eta ardatz kronologikoa. Euskal Herriko nahiz Europako arte forma, teknikak eta obra adierazgarrienak bildu dituzte lan honetan.




SIMEON GALDU DA

Gabrielle Vincent / Itzulp.: Eva Linazisoro

PAMIELA KALANDRAKA

Ernesto hartza eta Zelestina sagutxoaren gorabeherak jasotzen dituen bildumako ale berria da honakoa. Atsekabetuta dago Zelestina, Simeon bere panpin kuttuna galdu baitu. Ernestok, zorionez, irtenbide polita aurkituko dio arazoari, bai Zelestinentzat, bai basoan bizi diren beste animalientzat. Horretarako daude benetako adiskideak!



ANTZEKOAK GARA

G. Van Genechten / Itzulp.: L. Mendizabal

IBAIZABAL

Bikote bitxiak bildumako ale berria. Liburu honetako animalia bikoteek ezberdinak dirudite, baina zerbait garrantzitsua partekatzen dute: espazio berean bizi dira, gauza berberak egiten dituzte edo neurri berbera dute. Urtebetetik aurrerako haurrei zuzendua dago eta jakinmina, ezagutza eta kontzientzia ekologikoa sustatzea du helburu.



KORRI, XALTO TA BRINKOREN ABENTURAK

Mikel Susperregi eta Mikel Casal

XALTO TA BRINKO ANIMAZIO ELKARTEA

Korri, Xalto ta Brinko pailazoen gorabeheren inguruan argitaraturiko 10 liburuxkak ale bakarrean bildu dituzte orain. Pailazoen eta bertako pertsonaia ezagunen (Trapujale, Marinazkane...) abenturak aitzaki hartuta, Lezo ingurua eta hango gertaerak eta jaiak ezagutzeko aukera ematen du liburua, Jaizkibel edo Aiako Harriak kasu.



PIKONDOAREN BALADA

Leire Bilbao eta Maite Mutuberria

ELKAR

Xaguxar bildumako beste ale bat. Osaba Lukasek etxe ondoko pikondoaren adarretan pasatzen du eguna, liburuak irakurritik, etxeokoen hitz eginez eta kanta zaharrak abestuz; gerra iristen denean ere, bertan ezkutaturik geratuko da, armei uko eginda, halako batean, sekula gehiago arbolatik ez jaitea erabakitzen duen arte. 2016 Lizardi Saria jaso zuen liburu honek.



NORK AGINTZEN DUZ BOROBILEAN?

Uxue Alberdi eta Julen Tokero

ELKAR / KATXIPORRETA


Etxean, eskolan, kalean, lagunartean... eztabaidak sortzen direnean, ez da baxterre erraza izaten guztiak ados jartzea. Pirritx, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lorek, ordea, gaurkoan ikasgai garrantzitsua jaso dute eskolan: gatazken aurrean borobilean eseri beharra dago guztien eskariak, kezkek eta sentimenduak entzun eta erabakiak hartu ahal izateko.

PROPOSAMENA

Vikidia

Umeentzako euskarazko on-line entziklopedia

Gazteentzako sortutako Wikipedia bat da Vikidia, 8 eta 13 urte bitarteko umeentzako euskal entziklopedia, adin-tarte horretako haurrentzako moduko lexiko eta sintaxiarekin egina, euskara garbi eta errazean, eta umeen eskola-beharretara bereziki moldatua. *Vikidia.org* helbidearen bidez kontsulta daiteke entziklopedia.



Wikipediaren bertsio laburtu eta errazago bat izateko xedez sortu dute Vikidia, umeentzako euskarazko on-line entziklopedia, iritzita zenbaitetan Wikipediako artikulua luzeak, konplexuak eta zailak direla haur eta gaztetxoentzat. Bereziki, 8 eta 13 urte arteko umeen eskolako beharretara begira egina dago, baina ez horretarako bakarrik. Izan ere, Koldo Biguri euskarazko Wikidiaren sortzaileak azaldu bezala, euskara errazean idatzitako Wikipedia moduko bat izatea

da helburua, eta, hartara, “euskara ikasten ari diren helduentzat ere izan daiteke baliagarria; edozeinek kontsultatu ahal du, nahi dugulako artikulua irakurterazak eta ulertterazak egotea, baina aldi berean informazio nahikoa dutenak”.

Mathias Damour wikilari frantsesak sortu zuen Vikidia 2006an, frantseseko Wikipediaren barruan umeentzako atal bat sortzeko beharra proposatu zenean. MediaWiki motorra darabil Wikidiak, Wikipediak bezala, eta haren printzipio berberak

ditu, baina gaur egun Wikipediatik kanpoko proiektu beregaina da, ez dago sartua Wikimedia Fundazioaren barruan. 2008an, gaztelaniazko bertsioa abiatu zen, 2011n italierazkoa, 2012an errusierazkoa, 2013an ingelesezkoa, eta 2014an alemanierazkoa. Euskarazkoa 2015ean sortu zuen Bigurik berak, fratseseko bertsioaren arduradunen laguntzaz. Vikidia kontaktuan dago Euskal Wikilarien Kultura Elkartearekin, baina proiektu independentea da oraingoz, eta borondatez diharduten pertsona gutxi

batzuek hartzen dute parte bertan.

Guztira, orain arte, 690 artikulua osatu dituzte euskaraz. Zati handi bat, gaztelaniazko, frantsesezko edo ingelesezko bertsioetako testuak euskaratuz ondu dute, eta beste zati bat euskarazko Wikipediako edukiak egokituz Wikidiaren printzipio nagusietara. Bestalde, Maite Goñi irakaslearen bitartez, Jakintza ikastolako ikasle batzuek ere parte hartu zuten 2016an, eskolan landutako materialekin zenbait eduki osatuz. Era berean, EHUren Itzulpen eta Interpretazio Graduko ikasle batzuen lankidetzari esker ere sartu ahal izan dira dozena pare bat artikulua.

Bigurik azaldu bezala, Lehen Hezkuntzako azken urteetako eta DBHko lehen urteetako ikasleek behar duten informazio entziklopedikoaren eta haien euskarazko hizkuntza-gaitasunaren araberako edukiak eskaintzen ahalegintzen dira. “Wikipediako eduki asko eta asko ez dira oso egokiak adin tarte horretarako, bai oso luzeak direlako, bai informazio entziklopediko oso zabal eta espezializatua ematen delako, eta baita, sarri, erregistro jaso samarra erabiltzen delako ere”. Wikipediako eta Wikidiako informazioaren arteko aldea ikusteko, adibidez, Charles Chaplini buruz ematen den informazioa kontsulta daiteke.


Irakasle eta ikasleei parte hartzeko deia

Eskola-umeengan pentsatuta sortu dute Wikidia, baina ez haiek erabiltzaile huts gisa hautemanez, baizik eta baita partaide bezala ere: “Gure asmoa da adin horretako euskal umeek berek ere parte hartzea Wikidia egiten, haiek izatea interesatzen zaizkien artikulua idazten dituztenak, beharbada euren irakasleen laguntzarekin, eskolarako baliagarriak izan daitezkeen gaietan euren ekarpena eginez”. Horregatik, irakasleei dei berezia egin nahi diete proiektu honetan parte hartzeko eta euren ikasleak ere euskarazko Wikidia osatzera animatzeko, nahi baitute euskarazko Wikidia baliagarri izatea eskola-umeentzat, ez bakarrik euren eskola-lanak egin behar dituztenean kontsultatzeko, baizik eta baita artiku-

luak idatziz komunitate eraikuntza lanean parte hartzeko ere.

Wikipedia bezala, Wikidia ere erabilera libreko entziklopedia kolaboratiboa da, eta, beraz, wiki proiektu bat denez gero, edonork har dezake parte, artikulua idatziz, aldatuz edo osatuz, informazioa gehituz edo zuzenduz, baina beti ere hizkera garbia eta ulerterraza erabiliz. Horretarako kontua ireki besterik ez da egin behar: “Wikipediak duenaren antzeko bermea dauka Wikidiak ere. Edozeinek kontrola dezake idatzitako edukiaren zuzentasuna eta, okerren bat aurkituz gero, edonork zuzendu dezake. Erabiltzaileen erkidego edo komunitateak berak kontrolatu eta bermatu behar du plataformaren kalitatea”. Zentzu horretan, euskarazko Wikidiaren bultzatzaileei gustatuko litzaieke Euskal Herriko eskola komunitatea osatzen dutenek hartzea parte Wikidia egiteko lanetan, eta bereziki umeek eurek: haientzako ikasbide bikaina izan daitekeelako, egiten duten horren erabilgarritasunari begira batetik; eta, bestetik, testuak online sortzen eta editatzen ikasteko tresna ezinegokiagoa izan daitekeelako: “Umeentzat oso motibagarria izan daiteke jakitea euren lana nonbait geratuko dela, edonork irakurtzeko edo zuzentzeko; eta gazteek ere berdin egin dezakete: besteek egindako lana osatu edo hobetu”. Frantsesezko bertsioan, adibidez, esaten da editoreen erdiak bakarrik direla helduak, beste erdia ume eta nerabeak direla, edukiak eskola-proiektuen barruan sortzen eta igotzen dituztenak. “Ondo legoke hemen ere bide horretatik jotzea, kontuan izanik gaur egun ikastetxe askotan erabiltzen direla teknologia berrietara lotutako bitartekoak (blogak, web orriak, bideoak, powerpointak, etab.), eta desigarria izan liteke material hori leku batean zentralizatuta eduki ahal izatea”.

Ikastetxe, irakasle edo ikasleren batek Wikidiako arduradunen batekin harremanetan jarri nahiko balu, orrialde nagusiaren azalean (<https://eu.wikidia.org/wiki/Azala>) agertzen den “Eztabaida” hortzean klikatu eta mezu bat utzi dezake, edota bestela eu@wikidia.org helbidera idatzi.



Vikidia

Zer da?

Gazteentzat sortutako Wikipedia

Helbidea

www.wikidia.org

Xedea

8 eta 13 urte bitarteko haurrentzako euskarazko eduki egokiak on-line jartzea izan da xedea, hala Wikipediaren bertsio laburrago eta errazago bat osatzeko. Eskola-umeengan pentsatuta sortu dute Wikidia, baina ez haiek erabiltzaile huts gisa hautemanez, baizik eta baita partaide bezala ere. Horregatik, irakasleei dei berezia egin nahi diete proiektu honetan parte hartzeko eta euren ikasleak ere euskarazko Wikidia osatzera animatzeko, nahi baitute euskarazko Wikidia baliagarri izatea eskola-umeentzat, ez bakarrik euren eskola-lanak egin behar dituztenean kontsultatzeko, baizik eta baita artikulua idatziz komunitate eraikuntza lanean parte hartzeko ere.

Harremanetarako

Vikidiaren orrialde nagusiaren azalean agertzen den “Eztabaida” hortzean klikatu eta mezu bat utzi daiteke; edota eu@wikidia.org helbidera idatzi.

ATZEKO ATETIK



IRAKASLE HAIEK

GOIZALDE LANDABASO KAZETARIA

Eskolan sartu berri da fami-
liako txikiena. Lehenengoz.
Pozik joan ohi da, lagunak
ikustera. Jolastera. Oraindik
ez daki zer den eskola, zer esan nahi
duen. Oraindik ez daki bere bizitza
erabat aldatuko dela. Oraindik ez
daki hortxe aurki ditzakeela bere
bizitzako bidelagunak izan dai-
tezkeenak. Nik oroimen lausoa dut
eskolako lehenengo egunaz, baina
gogoan dut negarrez sartu nintzela.
Tira, ez daukat gogoan, baina beti
esan izan didate negarrez sartu nin-
tzela. Eta barneratu egin dut; neure-
neurea den oroitzapena sortu dut,
alegia. Jazotakoa berresteko-edo, ar-
gazki bat egin zuten; eta bai, horixe
naiz ni, eta bai, negarrez ari naiz.
Ez nuke paralelismorik egin nahi
etxeko txikienaren esperientziaren
eta nirearen artean. Seguruenik,
haren jolastokian ez dago sorginik
maltzurrenak ezkututzen zituen ate
misteriotsurik. Ziurrenik, irakas-
leak ez du bereizketarik egingo R
ahoskatzean ondo egiten dutenen
eta txarto egiten dutenen artean, eta
ez dakit litxarreriekin ospatuko ote
dituen urtebetetzeak. Ez dakit izan-

go dituen irakasleak samurtasunez
gogoratuko dituen denborarekin,
edo amorruez, edo axolagabekeriaz,
edo okerrean: ahaztuko ote dituen.
Hezkuntza-sistematik onena Finlan-
dian ei dago, eta irakasle izatea gau-
za handia da han. Irakasleen ofizioa
izugarri estimatzen dute herritarrek.
Irakasle-ikasketak egiteko, uni-
bertsitateak oso nota altua eskatzen
du Finlandian, eta aurkeztutakoen
%10 baino ez du onartzen. Gauza
serioa da irakaskuntza Finlandian,
serioena, agian. Ez dakit hemen
oso seriotzat daukagun hezkuntza,
irakasleen lana, baina esango nuke
erdi serio bakarrik hartzen dugula.
Gogoratzen ditut irakasle batzuk.
Ez dakit onak ziren, baina, hasie-
rako irakasle haien oroitzapen ona
daukat. Oso altuak iruditzen zitzaiz-
kidan, eta oso zaharrak. “Zuk zortzi
urte edo izango dituzu?”, galdetzen
genien zortzi zenbakia milaren
sinonimo zenean. Hazi ginen, baina,
eta, haztean, gauzak bere neurrira
itzultzuten dira. Irakasle haiek ez
ziren Matusalem bezain zaharrak
(berez, zaharrak ere ez ziren), ezta
Altzoko Erraldoia bezain altuak ere.

Dagoeneko izenak baino ez ditut
gogoratzen. Kanean ikusiko banitu,
ez nituzke ezagutuko seguruenik.
Haiek ni ere ez. Urteek aurrera egin
ahala, ugaltzen joan ziren irakas-
leak, eta nire ahanztura handitzen.
Batzuk ezabatu ditu nire garunak.
Ondo gogoan ditut txarrenak, eta on
apurak ere bai. Ikaskuntza-sasoia
ez daukat batere idealizatuta beste
gauza batzuk idealizatu ditudalako,
beharbada. Desberdinak ziren nire
ikasle-sasoia iren lekuko izan ziren
ikastola biak, eta hori ere esan behar
da. Lehenengoa, txikia, gurasoek
bultzatua, oinarri-oinarrietatik.
Erabateko inplikazioa eskatzen
zuen zen ikastola hura. Horre-
gatik, eta seguru asko ni umeago
nintzelako, samurtasunaren zokoan
gorderik daukat. Bigarrena, aldiz,
handia zen, urruna, zentzu batean.
Handik, ikaskideak gogoratzen ditut
batik bat (batzuk baino ez), eta izan
nituen irakasle txarrak. Arrazoa?
Ni nagusiago nintzen, eta osteran-
tzeko begiradarekin bizi eta ikusi
nuen dena. Edozelan ere, gero eta
urrunago dago dena, han, itsasoaren
ostertzetik harago.

KUBAko hezkuntza ezagutzeko bidaia pedagogikoa

Haurra hezten programa



Haur Hezkuntza



Unibertsitatea



Unibertsitate
aurrekoa



Lehen Hezkuntza



Bigarren Hezkuntza




TALDEA osatu denez, BIDAIA egingo da. FORMAZIOA SOILIK nahi dutenen-
tzako bada tokia (450 euro - hik hasi eta Hazi Heziko urteko harpidetza)

EGITARAUA:

Apirilaren 2an, astelehenean, "Kubako Hezkuntza Sistemaren antolaketa"ren aurkezpena.
Apirilaren 3an, asteartean, "Haurra hezten" programa eta Haur Hezkuntzako eskola bisitatu.
Apirilaren 4an, asteazkenean, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako eskolak bisitatu.
Apirilaren 5ean, ostegunean, Unibertsitate aurrekoa eta Unibertsitatea bisitatu.

Izena ematea www.hikhasi.eus helbidean



Martxoak 8

Eskaintza berezia

Chimamanda NGOZI ADICHIE idazle

nigeriarraren *Guztiok izan beharko genuke feminista* saiakera labur eta zuzena, mundu osoan arrakasta izan du. Lorea Agirrereren hitzaurrearekin argitaratu zuen Hik Hasi egitasmoak iaz, ikastetxe guztiek generoaren gaia lantzeko euskarri sendo bat izan zezaten, eta, Euskal Herriko ikastetxe guztietara zabaldu zuen doan.

Orain, nahi duten ikasle-talderekin landu dezaten, **ESKAINITZA BEREZIA** egin nahi die Hik Hasik heziketa zentroei: 10 ale edo gehiago eskatuta, liburuxka bakoitzak **euro 1ean** saltzea.

Tirada berezia egin beharko denez, urtarrilaren 31erako ekaera guztiak jasota izan beharko genituzke.

Gure eskaintza interesgarria iruditzen bazaizue, egin ezazue eskaera helbide honetan:

<http://www.hikhasi.eus/Denda/Liburuak>

hh
hik hasi